

ttipi-ttapa

250. zenbakia • 1999ko martxoak 25 • XVIII. urtea



250



alea

BORTZIRIETAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN...



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634104



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637829



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 637827

- ✓ Hezkuntza euskaraz
- ✓ Dohainik
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin
- ✓ Integratzailea
- ✓ Teknologi berriez baliatuta
- ✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan
- ✓ DBH, Batxilergoak eta LHI bertako institutuan
- ✓ Lesaka eta Beran 2 urteko umeentzako matrikula irekia



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 630684



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635215



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 630411

...HAINBERTZE!

Izen ematea: Apirilaren 16a arte

DATUAK.....

❖ Bittor Elizagoien, Oronozen bizi den arraiotzitarra suertatu da txapeldun Nafarroako Bertsolari txapelketan.

❖ Igandean Lesakan burututako finalean, Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Iñigo Olaetxea, Juan Mari Lopez, Xabier Silveira, Josema Leitza, eta Xabier Legarreta aritu ziren.

❖ Buruz buru egin beharreko ariketetan –kartzelako gaia, bertzeak bertze– Elizagoien eta Xabier Silveira aritu ziren.

❖ Bittorrentzat bigarren txapela da. Aitzinekoa 1994an lortu zuen, hura ere Lesakan.

TESTUA:

AITOR AROZENA

ARGAZKIA:

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

✎ Bittor ELIZAGOIEN *Nafarroako bertsolarien txapelduna*

“Maila berdintsua dugunez, hutsik gutien egin duenak irabazi du”

LESAKAN, PAULO IANTZI SARIKETAN BERTSOTAN HASIA, LEHENDABIZIKO TXAPELA LESAKAN IRABAZI DUELA BORTZ URTE ETA AURTEN BIGARRENA...

Hala izan da bai, Lesakan hasi nintzen bertsoan gazte-gaztea nintzelarik eta bi txapelak Lesakan lortu ditut. Azken agurrean erran dudana bezala, niregatik final guziak Lesakan jokatzen badira ere, ni gustora!

HALERE, BORTZ LESAKAR ZEUDEN FINALISTEN ARTEAN... ETXKOEN ARTEAN KANPOKOA NAGUSI?

Ni lesakarren artean etxean bezala sentitzen nauk, lagun haundiak dizkiat Lesakako bertsolariak, urte aunitz daramazkigu elkarrekin entrenamendutan eta Lesakan Baztanen bezala sentitzen nauk. Hor ez da batere arazorik.

ZUK BERTSO GUZIAK ADITZEKO AUKERA IZAN DUZU. NOLA IKUSI DUZU FINALA?

Lehendabiziko faean hagitz berdinduak ibili izanen gara denak, seguraski. Edozein pasatzen ahal zen aitzinera eta edozein atzean gelditu, hori garbi ikusten zen.

AZKEN FASEAN SILVEIRAREKIN ARITZEA SUERTATU ZAIZU. BIEK ERE URDURI XAMAR ARITU ZARETE TXAPELA HAIN



«Finalean geunden gehienek esperientzia handia dugu txapelketan».

HURBIL IKUSITA, EZ DA?

Iparragirreraren doinuan, azken bertsoan huts egin dut nik eta Silveirak ere bertsoaren batean huts egin du. Hortxe-hortxe ibili gara biek eta ez dugu alde nabarmenik atera.

IRAKASLE ETA IKASLEAREN ARTEKO LEHIAN, BERAZ, IRAKASLEA GARRAILE...

Beno, orain ez dakit zein den irakaslea eta

zein ikaslea. Haiek gazteak zirenean Manolo eta ni izan ginen beraien irakasleak, baina orai gu hainbeste edo gehiago nola dakiten, orduan haiek izan daitezke gure irakasle.

NAFARROAKO TXAPELKETAN SEKULAN IZAN DEN FINALIK GAZTEENA IZAN DA AURTENGOA ETA ZAHARRENA NAGUSI. ESPERIENTZIA NABARMENDU DELA ERRAN DAITEKE?

Nik ezetz uste dut. Finalean zeuden bertsolari guziek, Josema Leitza ezik, esperientzia handia dute fina-

lean. Nik 21. txapelketa nuen baina Estitxu Arozenak ere, oker ez banago, zortzigarren finala zuen. Nire iduriz, Nafarroan maila arras berdindua dago eta orduan hutsik gutien egin duenak irabaz dezake.

ORDUAN, ERREGULARITASUNA IZAN DA TXAPELA LORTZEKO GILTZA.

Bai, nere ustez denek gauza politak egin ditugu, baina inork ez du destakatu bertzeak baino gehiago. Lehen aipatu dizudan bezala, hutsik gutien egin duenak irabazi du txapela.

► *“Lehendabiziko fasean hagitz berdinduak ibili izanen gara denak. Edozein pasatzen ahal zen aitzinera eta edozein atzean gelditu”*

ttipi-ttapa

Aldizkari bat baino zerbait gehiago

ALDIZKARIA ZENBAKITAN

Harpidedunak urtez-urte

Urtea	Harpidedunak
1981	300
1985	500
1990	1.923
1995	5.472
1999	7.049

■ Urteko produkzioa 1999

Urtean **24** aldizkari
 Aldian **7.100** ale
 Urte osoan **168.000** ale
 Aurrekontua **28.846.544 Pta.**

Harpidedunak eskualdeka (99/03/15)

Baztan	1.504 harpidedun	8.053 bizilagun
Baztango 15 herriak		
Bortziriak	2.113 harpidedun	8.531 biz.
Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka		
Leitzalde	1.001 harpidedun	4.499 bizilagun
Araño, Areso Goizueta eta Leizta		
Malerreka	1.197 harpidedun	5.311 bizilagun
Malerrekan kontatuak dira Basaburua, Bertizarana eta Sunbilla.		
Urdazuri	664 harpidedun	6.645 bizilagun
Sara, Sempere, Urdazubi eta Zugarramurdi		
Bertzetan	570 harpidedun	
Eskualdetik kanpo (Euskal Herria, Europa, Amerika...)		

■ Jakin dezazun

- Badakizu zenbat kosta den eskuartean duzun aldizkari hau? **Gastu guziak kontatuta, aldizkari bakoitza 172 Pezeta edo 6,9 Libera kosta da. 172 Pta. horietatik 70 Pta. udalek ordaintzea nahi genuke, Nafarroako Gobernuak 41 Pta. eta falta diren 61 Ptak. Fundazioak ordainduko litzuzke.**
- Urte batean etxean hartzen dituzun aldizkari guztiek, zenbat balio dute? **Urtean 24 aldizkari direla kontuan hartuta, 4.121 Pezeta edo 165 Libera.**
- Herriko Etxe bakoitzak iaz eman zuen dirulaguntzarekin, aldizkari bakoitzatik zenbateko gastua ordaindu zuen? **Udal guziei, herriko familia bakoitzengatik 70 Pta. inguru ordaintzea eskatu zitaion. Eman, ordea, kantidadea hauek eman zituzten:**

Aranoko Udala	70 Pta.	Aresoko Udala	0 Pta.
Baztan Balleko Udala	11 Pta.	Bortziritako Mankomunidadea	70 Pta.
Goizuetako Udala	52 Pta.	Leitzako Udala	47 Pta.
Malerrekako Mankomunit.	37 Pta.	Sarako Herriko Etxea	12 Pta.
Urdazubiko Herriko Etxea	16 Pta.	Zugarramurdiko Herriko Etxea	0 Pta.

TTIPI-TTAPA ez da aldizkari bat hutsa. Hamabostero 7.000 etxetara sartzen den berripapera izateaz gain, bestelako hedabide, produktu, kultur jarduera eta zerbitzuak ere eskaintzen ditu: komunikabide arloan telebista eta interneteko edizioa; kultur jardueren artean Euskara Jardunaldiak; inbestigazio arloan Baztan, Malerreka eta Bortzerrietako Euskalkien Azterketa; TTIPI-TTAPAREN lagun diren irakurle, teleikusle eta merkatoriendako abantaila komertzial desberdinak Ttipi Txartelaren bitartez; publizitate zerbitzuak eta zerbitzu komertzialak Kulturkariren bitartez... Azken finean, TTIPI-TTAPA aldizkari bat baino gehiago ere bada.

aldizkari honek, orain dela hemezortzi urte sortu zenetik, sekulako ibilbidea egin du dagoeneko. Urratsik haundiena, halere, 1990ean eman zuen.

Ordurarte hiru hilabetetik behin argitaratzen zen eta 500 edo 600 ale bertzerik ez ziren saltzen. 1990etik aitzinera, ordea, planteamendu arras berriekin hasiko da ibiltzen, eta planteamendu hartatik sortuko da gaur egun-

go aldizkariaren bizkar hezurra. Hasteko, bi astetik behin ateri eta bakar bakarrik harpidetza bitartez zabalduko da. Helburua garbi da zein den: etxe guztietara ailegatzeta. Etxe bat, TTIPI-TTAPA bat. Horretarako nahitaez-

koa zen, eta da orain ere, Nafarroako Gobernu, Herriko Etxe eta Mankomunidade desberdinen inplikazioa proiektuarekin, finantziarioaren bi hanketako bat dirulaguntzak baitira. Eta falta den dirua, publizitatea sal-

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ALDIZKARIARENDAKO EMAN DITUZTEN DIRULAGUNTZAK (Pezetetan)

UDALAK	1995		1996		1997		1998	
	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu	Eskatu	Hartu
Arano							70.000	70.000
Areso	140.655	20.000	147.224	20.000	140.777	20.000	141.505	0
Baztan	3.120.694	0	3.266.419	500.000	3.123.393	500.000	3.139.545	525.000
Bortzirriak ⁽¹⁾	3.589.030	3.589.030	3.756.624	3.589.030	3.589.040	3.589.040	3.610.500	3.610.500
Goizueta	400.327	250.000	419.021	250.000	400.673	250.000	402.745	300.000
Leitza	1.324.633	900.000	1.386.481	900.000	1.325.779	900.000	1.332.635	900.000
Malerreka ⁽²⁾	2.298.401	1.150.000	2.405.728	1.000.000	2.300.389	1.000.000	2.312.285	1.229.904
Sara	-	25.000	-	25.000	-	25.000	-	37.500
Urdazubi	216.393	0	226.498	50.000	216.580	50.000	217.700	50.000
Zugarramurdi	140.655	10.000	147.223	20.000	140.777	0	141.505	0
Nafarroako Gobernua	8.000.000	8.000.000	8.200.000	8.200.000	8.200.000	8.200.000	8.200.000	7.300.000
EKE							-	75.000

⁽¹⁾ Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak emandakoa

⁽²⁾ Malerreko Zerbitzu Mankomunitateak emandakoa

duz eta batzuetan posta gastuak kobratuz eskuratu da. Eta egia erran, 1990ean hasitako bide berriak emaitza ikusgarriak agertu ditu urteak igaro ahala. Gaur egun bi astetik behin zazpi mila etxetara sar-tzeaz gain, proiektu, jarduera eta zerbitzu berrien sorburu ere bada.

TTIPI TXARTELA. Txartel honek alde desberdinak uztartzen ditu: batetik TTIPI-TTAPAREN lagun diren pertsonak, bertetik merkataria eta zerbitzuak, eta hirugarrenik Fundazioa bera. Gaur egun 1.000 txarteldun eta 50 merkataria daude TTIPI TXARTELAren abantailak aprobetxatzen.



Ttipi-ttapa Fundazioa

Azken bi urteotan nobedaderik haundiena barne antolaketan gauzatu da. Proiektu, jarduera eta zerbitzu berriei egoki erantzuteko erreminta hobekak behar direnez, Kultur Elkartearen lekukoa Fundazioak hartu du. «Euskal kultura sustatu, euskararen normalizazio soziala bultzatu eta herri komunikabideak babestu eta laguntzea» dira TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREN helburuak. Langintza horietan erreminta eraginkorra izateko, Nafarroako Legeak fundazioei onartzen dizkien ahalmen eta abantaila guztiak tramitatu eta eskuratuak dituz dagoeneko, eta aldizkariaren arrimuan proiektu eta egitasmo berriak ere martxan daude.

Ttipi Txartela

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK martxan jarri zuen lehenbiziko proiektua da

Telebista eta internet

Aldizkariak gain, komunikabide modernoak ere martxan jarri ditu euskararen eta herritarren alde. Momentu hauetan horiek hobetu eta zabaltzeko ahaleginetan dabil buru-belarri Fundazioa.

Kulturkari publizitate agentzia eta zerbitzu komertzialak

KULTURKARI DA Fundazioaren hornitzaile ekonomikoa. Publizitate agentzien zereginak egiten ditu batetik, eta bertetik, inprenta lan desberdinak.

Jardunaldiak eta ikerketak

Joan den urtean hasitako lanak aurten segida izanen du. *Euskalkiak eta euskara batuari buruzko II. Jardunaldiak* egiten dira urrian, eta *Baztan-Bidasoako euskalkien azterketa* bukatuko dute Paxkual Rekaldek eta Patxi Iñigok. ■

Telebistaren aldeko Laguntza Kanpaina bide onean dago

Bildu nahi diren 6 milioi pezetetatik 5 bildu dira

Orain arte ez zaio bertako jende-ari deus kobratu aldizkaria bidaltzeagatik. TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN aldeko Laguntza Kanpaina izan da TTIPI-TTAPAK dirua eskatzen duen lehenbiziko aldia. Eta egia erran, ikasketa baliotsua izan da. Badakigu badagoela jendea TTIPI-TTAPARI laguntzeko prest dagoena, eta ez gutti. Guztiei eskerrikerri beroenak.

Zentzu horretan, komeni da jakitea TTIPI-TTAPA FUNDAZIOARI emandako diru edo donazioek, norberaren Errenta Aitorpena egiterakoan %20 desgrabatzen dutela. Konparazioan, 12.000 Ptako laguntza emanez gero, 2.400 Pta.

desgrabatzen dira zergaren kuotatik. Enpresek emandako donazioek ere desgrabatzen dute Sozietateen Gaineko Zergan. Horretarako, TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK Ziuertagiria bidaliko die laguntza eman duten guziei.

Kanpainak segitzen du oraindik

Sei milioitara ailegatzeko milioi bat falta da. Hortaz, kanpainak segituko du helburua lortu arte. Beheko koadroan ageri da herri bakoitzean bildu dena. Konparazioan herri ttikienetan laguntza gehiago bildu da Bera eta Lesakan baino.

Horregatik, hemendik aitzinera ahalegina bi herri hauetan zentratuko da batez ere.

MOMENTUZ BILDUA DENA (99/03/17)

	Momentuz Bildutakoa	Helburua
ARANTZA	613.000	516.000
BERA	1.377.000	2.496.000
ETXALAR	1.034.000	600.000
IGANTZI	836.000	432.000
LESAKA	918.000	1.956.000
Bertze herriak	80.500	-
Denetara	4.858.500	6.000.000

Bertzalde, Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak 3.000.000 Ptako dirulaguntza onartu berri du.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leizta,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria140 Libera

Europa3.500 Pta.

Amerika15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Nahita eragindako suteak Baztan aldean

Jendeari entendiari behar zaio ez dela nolahi su eman behar



Juan Bautista OTEIZA
Arraiozko alkatea

Arraiozen duela bi aste su ttiki bat izandu zen. Ondo-ondoan plantazioak zeuden eta arriskutsua zen, bai, baina erre zena otea eta iratzea bertzerik ez zen izan. Pentsatzen dut artzaiekin kontuak ote diren... ez zen intentzio txarrarekin emana, baina gero beldurrarengatik eskapo joan izanen zen. Herriko Etxean izandu genuen gai horren gainean bilkura bat, Otsondoko su fuerte haien ondorioz. Saiatu ginen soluzio bat bilatzen, jendeari entendiari behar zaio ez dela nolahi su eman behar. Permisoa eskatu behar da, baina beldurrarengatik ez dakit zertaz jendeari ez zaio hori burutaratzen. Bakotzak ezin ditu bere kontuz hartu gauza hauek eta haizerik gehien-gehien delarik su eman! Burutik ongi denak ez ditu gauzahoiek egiten... nik badakit erre behar diren tokiak badirela, baina pentsatzen dut forma diferentetan egiten ahal direla gauzak. Baimena eskatzeko ez da deus egin beharrik. Baztango alkate guziek baditugu paper batzuk betetzeko. Horrelakoetan datuak eman eta zergatik erre nahi den erratea aski da: *«nere ardiak hor dire eta otea haunditzen ari da»*, hori aski da. Orain berean hamalau lagun badire gauza hoietan laguntzeko prest, baina ez dugu dei garanik ere jaso!

Administrazioak hartu beharko zuen zenbait mendi garbitzeko ardura



Juan Martin ALEMAN
Amairuko baserritarra

Nere ustetan, su kontrolatuak egiteko nahiko errestasun bada gaur egun. Halere, afera honen inguruan denbora batean errepresio franko izandu zen administrazioaren aldetik, eta baserritarrek konfiantza galdu ote zuten pixket. Oraingo axolagabekeria hortik heldu da, nik uste. Denbora beharko da konfiantza hori berreskuratzeko, beti baitaude batzuk naturarekin kontzientzia edo motibazio guttiago dutenak. Interes franko daude su ematen dutenen artean: alde batetik, mendiko zikinak garbitzeko egiten dute, ustetan aziendarengatik ere bazka hobe ateratzen dela gero. Bainan ez da horrela. Orain dela aspaldi, maiz erretzen ziren mendietan eta bazka murrizta zen lekuetan ardiak eri jarri eta hil egiten ziren, ez tulak jota. Gero jakin zen bazka finegia izateagatik hiltzen zirela. Bertzalde, mendiak ezin dira sobera denbora luzez erre gabe utzi, arriskua baita gero belar onak eta txarrak denak elkarrekin erretzeko. Herriko Etxeatik hasita, Administrazioak hartu beharko zuen zenbait mendi erretzeko ardura, inoren esku utzi gabe. Hor huts haundia egin du Administrazioak. Desbrozatzekak kostu ikaragarria duenez, tartean suz garbitzea izanen zen txar guzietan hobereena.

Aurten su kontrolatuak egiteko baimen gehiago eskatu dira



Joxe Ramon SARRRATEA
Almandoz. Suhiltzailea

Martxoan bakarrik, zortzi sutetik goiti izandu da Baztanen. Hoietatik gehienak nahita bixtuak, baina bakarren bat kontrolatua ere bai. Iruritan egondu ginen su kontrolatu batean, eta Almandozen bertze batean, baina ikustera baik. Gaur egun su guzitara ateratzen gara, ttikiak baldin badira ere berdin. Urte hasieratik honat NARBARTeko pinadi bat, adibidez, hiru aldiz erre dute, Otexon mendian hain zuzen ere. Hor arazoa badute mendi hori norena ote den ez dagoelako garbi. Aurten, halere, bertze urtetan baino su guttiago izan da, euria eta elurra franko bota duelako. Gainera hasi dira pixkan-pixkan baimenak eskatzen. Elizondoko Herriko Etxean bilkura bat izandu zen, eta baserritarrek kontzientziaz hasiak direla iduri du. Mendiari su ematen diotenen artean, batzuk larreak garbitu nahi dituzte ardientzat-eta, baina bertzeren batzuk txarkeria egiteatik ematen dute sua. Azken hoietatik gutti dira, ordea. Bertzalde, badaude mendiak arrot zikin daudenak, ez baita aski garbitzen. Artzainak ere mendian gero eta guttiago ibiltzen dira, eta zikinatasuna gero eta gehiago dagoela.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

BOTA BERTSOA

Asier Olaizola pilotariari

Joxemanuel OIARTZABAL

Doinua: Iparragirre abila dela...

*Aupa Asier buruan baituk
Espainiako txapela
profesional mailan aurrena
ziur azkena ez dela
partidua gogorra
baina emaitza horra
suertatu guk nahi bezela
merezimendu osoz jantzi duk
beraz bejon dagikela*

*Goizuetarrak egun hauetan
bizi gara zorionez
herri txiki hau nola ez da ba
harrotuko bere semeez
baina argi, kuido!
anaia ere hor dago
ta egingo nuke trabes
hurrengo urteko bi-bitakoa
anaiartekoa baietz*

IRAKURLEAK MINTZO

Berako zeharbidea:

Berako Herri Batasunak, zeharbidearen lanak direla eta, zenbait zalantza argitzeko obrako teknikoekin biltzea eskatu zion Berako Udalari, idatzi baten bitartez.

Teknikoek, alkatearen aginduz, idatzi bat prestatu zuen. Gure zalantzak ezagutzen ez zituztenez, galdetu ez geniona erantzuten ziguten. Erantzun ofizialak hala dio: "Proiektua jendaurrean egon da biribilguneak eta Altzateko plazari buruz argibideak emateko bilerak egin ziren. Gainera, ez zaigu logikoa iruditzen obra espedientearen premia zkoa izendatu eta esleipena egin ondotik, idatzi bat aurkeztea". Alkateak berak teknikoekin azalpenak onartzen dituela, eta euri ura eta hondakin urak etxebizitza berrietan bertzerik ez direla bereizten gaineratzen du.

Ezin dugu sinetsi, urtero, bestetako egitarauan alkateak egiten digun agurra kontuan harturik (Herriko Etxeko atak zabalik daude beratar guzientzat...), guri teknikoekin biltzeko eskaera horri uko egitea. Zuzenketak aurkezteko epeak pasatu arren, sortu zaizkigun zalantzak argi-

tzea bertzerik ez dugu nahi eta.

Araztegi berriak, ur garbiak eta hondakin urak bereizten ez badira izan dezakeen arazoak ohartarazi genuen alkate jauna. Era berean ur mistoak biltzen dituen kolektorearen egoera txarra aipatu genuen, gainera ondoran bada bertze hodi berriagoa eta porlanezkoa, baina

bigarren honek kaleko alde bateko ur zikinak biltzen ditu soilik, 78 eta 79 urteetan gaizki burututako proiektua dela medio (gogoratu garai hartan egungo alkatea Herriko Etxeko kide bakarra zela, Alkate eta zinegotzi guztiek, Manuel Iriartek ez ezik, dimititu baitzuten).

Egitasmo aski polita zegoela erran ziguten, baina orain jakin dugu, egitasmo honek ez duela arazoa konpontzen. Karriketako zola harrotuta dagoen bitartean garaiz gaudela arazoa konpontzeko. Behin zola berriro ondotik, arazoa sortzen bada, berriro dena urratu behar, berriro dena hankaz goiti, traba eta gastua bikoiztuz noski. Baliteke gure zalantzak funsgabeak izatea, baina, arazoia edukiko bagenu? Zenbat proiektu edo egitasmo aldatu behar izaten dira behin lanean hasi ondotik?

Ez dugu uste solasaldi labur batekin inori kalte egingo diotik. Ez dugu sobera eskatzen.

Josu GOIA

BERAKO HERRI BATASUNAREN IZENEAN

Tintoreria *Jaione*

Elizagibela, 7 • DONEZTEBE • 948 45 05 21

*Apirilaren
6tik
aitzinerara
zabalik*

GARBITEGIA

- Laneko arropak
- Mantak
- Edredoak
- Maindireak
- Gortinak
- Fundak

TINTATEGIA

- Garbiketa idorrean
- Oihalak

LARRUGINTZA

- Antea
- Larrua
- Napa
- Garbiketa eta tindaketa

TAPIZATUAK

- Alfonbrak



**Bidali TTIPI-TTAPA
herritik kanpo
bizi diren lagun
edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze
gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

 (+34) 948 631188

ttipi-ttapa 250. alea

Urte askotarako, segi aurrera!

**Leitza, Goizueta,
Areso eta Aranoko
Euskara Zerbitzua**

**ttipi-ttaparen
lagunak**

**TTIPI-TTAPA
TELEBISTAK
LAGUNTZA BEHAR DU**

**Laguntzekomodua baldin baduzu,
sartzen ahal duzu zure
laguntza honako kontu batean:**

Nafarroako Rural Kutxa/CRN
3008 0080 52 0200014973

Nafarroako Aurrezki Kutxa/CAN
2054 0020 95 9102902177

Euskadiko Kutxa/Caja Laboral
3035 0135 92 1350700437

Iruñeko Kutxa/Caja Municipal
2053 0087 33 3010003299



Eman nahi dut **12.000 Pta.** Bertze kantidadea.....

Jarri zenbat

LAGUNTZAILEAREN DATUAK

Izen Deitura: _____ Karneta: _____

Helbidea: _____ Tfnoa: _____

Posta Kodea: _____ Herria: _____ Herrialdea: _____

BANKUKO DATUAK

Titularraren Izen-Deiturak: _____

Entitatea Sukurtsala Kontrol Digitoa

Kontuaren Zenbakia **IDATZI 20 ZENBAKIAK**

Ordainketa epeak: _____

Dena zati batean Urtean 2 zatitan Hilabetero 1.000 Pta

Data: _____ Sinadura: _____

Azkenik, komeni da jakitea TTIPI-TTAPA FUNDAZIOARI emandako diru edo donazioek, norberaren Errenta Aitorpena egiterakoan % 20a desgrabatzen dutela. Konparazioa, 12.000 Pta. emanaz gero, 2.400 Pta. desgrabatuko dituzue zergaren kuotatik.

Horretarako, behar beharrezkoa da ondoan dagoen koadroko datu guzti-guztiak betetzea, eta manera horretara, Errenta Aitorpena egiterakoan aurkeztu behar duzun Zertifikatua emanen dizue TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK.

Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu **948 63 11 88** telefonora.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Zazpika 99ko martxoaren 14a

«Nik ikastola aurrera atera behar dut, nire helburua Erriberatik haur euskaldunak ateratzea da. Hori oso garrantzitsua da niretzat».

Ana Ixabel HERNANDORENA
LEGASA

Korteseko ikastolan irakasle
GARA. (Zazpika) 99-03-14

«Uste baino lasaiago atera nintzen. Ez nintzen batere urduritu eta gauzak nahiko ongi atera zitzaizkidan».

Asier OLAIZOLA
GOIZUETA

Espainiako txapelduna.
Diario den Noticias 99-03-15

«Erridikulua egin dut. Jendeak aunitz lagundu nau eta hori eskertu nahi diet».

Mikel GOÑI
ORONoz

Espainiako txapeldunordea.
Diario den Noticias 99-03-15

◆ Zergatik igeltsero lanetan?

◆ Gustoko dudalako.

◆ Gaztea izanik, zailtasun asko izan al dituzu lana aurkitzeko?

◆ Ez.

◆ Zenbat istripu lan orduetan?

◆ Jesus...asko.

◆ Udako bero haundiak, euria, zein da lanerako gogorrena?

◆ Euria. Beroak ez nau ikarutzen.

◆ Otorduetan, biziorik?

◆ Nahaste borrarasteak. Bariazioa.

◆ Eraikuntza lanak gorakada haundia izan du?

◆ Ikaragarria.

◆ Kolore maiteena?

◆ Horia.

◆ Aurtengo oportetara nora aldera?

◆ Galizia aldera

◆ Zer sentitzen da norberak bere etxea egiterakoan?

◆ Poza eta konpromiso latza, haundia.

◆ Noiz erosi duzu azken musika diska?

◆ Ez naiz gogoratzen.

◆ Zer edo nork galeratzen dizu loa?

◆ Ba... ez dakit, agian gastuak.



Jose Joakin SAIZAR

ARESO
Igeltseroa

ttipi-ttapa telebistaren programazioa



ASTELEHENA, 29

13:00 Herriz Herri:
21:00 Berriak
21:30 Jokoa Solas:
Asteburuko kirol
jardueren errepaso.

ASTEARTEA, 30

13:00 Berriak (errepika)
13:30 Jokoa Solas
(errepika)
21:00 Berriak

ASTEAZKENA, 24

13:00/13:30 Berriak
(errepika)
21:00 Berriak
KORRIKA

ORTZEGUNA, 25

13:00 Berriak (errepika)
KORRIKA
21:00 Berriak

ORTZIRALA, 26

13:00/13:30 Berriak
(errepika)
21:00 Berriak
21:30 Herriz Herri

ASTEAZKENA, 31

13:00/13:30 Berriak
(errepika)
21:00 Berriak
21:30 Bidegurutzetan
Kultur eta gizarte
gaien buruzko
magazina.

ORTZEGUNA, 1

13:00 Berriak (errepika)
13:30 Bidegurutzetan
(errepika)
21:00 Berriak

ORTZIRALA, 2

13:00/13:30 Berriak
(errepika)
21:00 Berriak
21:30 Herriz Herri
Herrietako berrien
bilduma herri ba-
koitzeko berrie-
maileen eskutik.

Bidasoaldeko Ezkongaien Feriak iaz baino jende gehiago bildu zuen Etxalarko Bentan

Hemezortzi komertzio beraien eskaintza erakutsi zuten

TTIPI-TTAPA

Bidasoaldeko Ezkongaien Feria burutu zen martxoaren 14an Etxalarko Bentan. Joan den urtean egin zen lehen aldiz eta orduko arrakasta gogoan, hemezortzi komertzio eta merkatal etxek antolatu dute aurtengo azoka.

Jende ugari hurbildu zen Etxalarrera, horietatik aunitz ezkontzaren bat begi bistan dutenak, eta egun berezi hori prestatzeko denetikikusi zuten: ezkongaien arropa, bidaiak, musika, ardoa, barne arropa, ume nahiz helduentzako arropa, ileapaintzaileak, argazki eta bideoak edo goxoak.

Baina, dudarik gabe atentzioa gehien deitu eta espektazio haundiena sortu zuen



Modeloen desfilea jendearen gustokoa izan zen.

atala moda desfilea izan zen. Ordu terdiz, lenteria, soin eleganteak, haurrentzako arropa eta berexiki ezkongaiantzako trajeak jantzi zituzten modeloek. Beraien ibilerarin eta ponpoxoarekin bertaratutakoen arreta lortu zuten. Desfilea, ezkontza kontuetan esperientzia luzea duen Beti-Jai or-

kestak alaitu zuen.

Ezkongaien Feria egun osoan zabalik egon bazen ere, jende gehiena arratsaldean bildu zen. Erakustokietan jarritako gauzak ikusteaz gain, arduradunen argibideak adi-adi entzun zituzten, zalantza guztiak argitzeko. Honelako laguntzarekin, seguraski bertara agertu ziren

berrogeita hamar bat ezkongaiak beraien zalantza eta galderak argitu izanen zituzten, geroz eta hurbilago duten egun berexi hortarako.

Azoka itxi baino lehen, Errandonea banatzaileak ekarritako Segura Viudas cava eta pastelak dastatu ahal izan ziren, berrendu gisara.



TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Ferriako 18 komertzioak

Mari Nieves andregai arropa
Zinnia loredenda
Bortzirudi inprimategia
Maldaerrega Bidaiak
Casa Ostiz zapatadenda
Olatz bitxitegia
Segura Viudas cava
Jeca arropak
Maria Jose gozotegia
Yoa ileapaindegia
Foto Zaldua fotografia
Mari Cruz lenteria
Ibarrola umeen arropa
Kulturkari publizitate agentzia
Etxalar jatetxea
Telletxea altzariak
Lulu Boutique
Bodegas Irache ardoak

ZURE EZKONTZ-ERREPORTAIAN AUKERA BEREZIA

- Ordubete eta laurdeneko zinta originala
- 2 kopia oparizat + PREVIA
- Muestra konpromezurik gabe

Tel.: 943 61 83 14 • Hondarribia karrika z/g • IRUN



ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiok karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri I • BERA • Tel eta Faxes: 948 631 169

J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

EDARRIAK

Bidasoa K/62 - 31700 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

LAZTERE - JAKO

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

Aurten ere 8,8 milioi pezetako aurrekontua izanen du kulturak

Herriko kultur taldeek urte guziko egitaraua prestatu dute

ASIER GOGORTZA

Iazko diru kopuru berdintsua sartu da aurten kulturako aurrekontuetan. Joan den astean Kultur Batzordeak egingako bilkura batean 99an izanen dugun kultur eskaintza finkatu zuten herriko kultur taldeek, eta ekitaldi hoiek antolatzeko Udaletik zenbat sos jasoko duten ere argitu zen.

Denen artean egitarau orekatua osatzen saiatu dira, kulturako arlo guzikiak (antzerkia, musika, dantza, bertso-larritza...) bete xamar gelditzeko moduan. Iduri du pixkan-pixkan kunplitzen ari direla Kultur Batzordearen helburuak, eta aurten aitzinpausu garrantzitsuak emanen dira, publikizadarearen aldetik batez ere.

Urte osoan izanen dira kultur ekitaldiak

99an izanen ditugun ekitaldien artean bakarraren bat nabarmentzekotan Mikel Laboaren kontzertua aipa genezake, irailaren 25ean egitekoa dena. Hurbilago oraindik, 'Shakespeare osoa...' antzezlan eza-guna ikusgai izanen da maiatz hondar aldera.

Bertzetik, erran behar da aste honetan ber-



Kultur Errota Berarat ailegatuko da ortziralean

Martxoaren 26an, Kultur Errota izeneko zirkuitu kulturalak Beran egingen du bertze urrats bat. Arratseko 10etatik aitzinera 'Bide Ertzean' eta 'Tabu Tabar' taldeek beren emanaldia eskainiko dute Pui ostatuan. 'Bide Ertzean' 'Deabruak Teilatuetan' taldeko kide ohi batzuek sortu zuten, eta berriki izen bereko diska ateratu dute. 'Tabu Tabar' taldeak, bertzalde, Jugoslaviako folk musika lantzen du, eta, soberra ezagunak ez direnez, joan eta ikusi egin behar.

tan badirela zenbait kulturekitaldi ere. Hasteko, asteazkenean (martxoak 24), **soka audizioa** egingen da, biolinak, biolak eta gisako instrumentuen emanaldia hain zuzen. Arratsaldeko 6,30etan izanen da kultur etxean, eta Isidoro Fagoaga musika eskolak antolatu du.

Igande honetan, berri, areto dantzak izanen dira ikusgai toki berean, "Carlos eta Merte" dantzari bikotea eta Berako abesbatzaren eskutik. Arratsaldeko x-tan izanen da hori.

Gure Txokoak ortziralean egingen du batzar orokorra

Gure Txokoa elkarteak ortziral honetan bertan egingen du urteko batzarra, iluntzeko 8etan Iamotenean. Gai ordenean ageri denez, 99. urteko aktibitate eta egitasmo guziken laburpena egingen da, eta ondoren zuzendaritza batzordea berritzeaz solastuko dira. Gero, edozein galdera eta eskari egiteko modua izanen dute bazkideek.

Bertzalde, berriki bazkideen artean partitu den urtekaria ez baduzu etxean jaso, Gure Txokoako arduradunen batekin harremanetan jartzea izanen duzu hoberena. Astelehenero Iamotenean egoten dira arratseko 8,30etatik 9,30etara. Bertatik pasatu edo telefonoz deitzen ahal duzu, beraz (948 630 314).



flash

❖ **EHren batzarra**
Martxoaren 27an, arratsaldeko 4tan, Berako EHk batzarra egingen du Espidobaita elkartearen. Alderdiaren eraketaz eta hauteskudeetaz mintzatuko dira, bertzeak bertze.

❖ Telletxea kanporatzearen kontra

Berako Udalak Jose Luis Telletxea Portugaletik bidaltzearen kontrako mozio bat onartu du. «Lehen horretarako motiborik ez baldin bazen, orain ere ez dago justifikaziorik» dio familiaren idatziak. Espainiar poliziaren torturen beldur errefuxiatu zela adierazi du Udalak, eta Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea duela. Akordio hau Portugalgo kontsulatura eta Barne Administrazioa igortzea erabaki zuten.

❖ Guatemalarako diru-laguntza

"Guatemala: begirada bat" kanpainan egin zen otsailan Beran, Kultur Etxean ikusgai egondu zen erakusketarekin batera. Guztira 178.100 pezeta bildu da herrian, eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman dutenei. Kanpainan honekin bildu den dirua granjak eta eskolak egiteko erabiliko da.

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA

ZALAIN
Zalain Auzoa
© 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

BOBO
© 948630052 • Zalain • BERA

LITZETAK
© 948631076 • BERA

LESACA

362 milioi pezetako aurrekontua izanen du aurten Udalak

Bakar-bakarrik PNVren aldeko botuekin onartu zen

AITOR AROZENA

362.888.000 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten udalak, PNVren aldeko botuekin, HBren kontra-koekin eta EAren absentezioarekin azken batzarrean onartutako aurrekontuaren arabera. Andra Mari Zahar Etxeak, bere aldetik, 45 milioi pezetako aurrekontua izanen du.

HBren ustez, etxebizitza, kultura edo langabeziaren arazoak konpondu gabe uzteaz gain, gastuak estaltzeko mendia xahutzen da aurrekontu honekin. «Sarreren ia %20a menditik ateratzen da. Azken bi urtetan menditik 125 milioi inguru atera dira eta mendizainaren iriziz urtero 15 milioiokoa da etekin egokia. Gure



Amaia Zubiria kontzertuan

Tanturumairu dantza taldea eta Ziobi abesbatzaren laguntzaz kontzertua eskaini zuen Amaia Zubiriak martxoaren 12an udal pilotalekuan.

ttipi-ttapa telebista

kezka da hemendik urte batzuetara zer gertatuko den».

Alkateak, bere aldetik, langabezia eta kulturaren arazoak moldatzeko pausuak ematen ari direla azpimarratu zuen, Alkaia gako enpresen mintegia eraikitzea eta musika bandak eta abesbatzak entsaia-

tzeko erabiltzen duten Eskol-Txiki moldatzea, hain zuzen. Alkatearen erranetan, aurtengo aurrekontuan 69 milioi lortzen dira menditik eta 20 inbertitzen dira. «Ez dago ente pribaturik ezta publikorik mendietatik lortzen duen dirutik portzentai hori berriz inbertitzen duenik».

flash

Oihan enkantea

Errenga, Piperla, Gogorregi eta Paboileta inguruetan 60.875 zuhaitzen aprobetxamendua egiteko enkante deia egin du Udalak. Hasierako prezioa 2.370.000 pezetakoa da eta kontuan hartu behar da bertze zuhaitzak bi metro terdiko altuera arte kimatu behar direla. Proposamenak apirilaren 26ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Zazpigarren Herri Lasterketa apirilaren 18an egingen da aurten

Batzoki Elkarteak, Nafarroako Rural Kutxa eta Lesakako Udalaren babesarekin antolatutako Zazpigarren Herri Lasterketa apirilaren 18an egingen da aurten.

Izena lasterketa hazi baino ordu erdi lehenago arte ematen ahal da, baina hobe da aitzinetik egitea, 948

627622 edo 610 012224 telefonora deitura (Julian). Parte hartzea dohainik da eta partaide bakoitzak, sariak aparte, oroigarri batzuk eskuratuko ditu.

Joan den urtean, adinguzietako 820 korrikalari inguru bildu ziren eta aurten 16 ikastetxe daude gonbidatuta proban parte hartzeko.

Haurren proba, goizeko 9,50etan hasiko da eta hortik aitzin, benjamin, alebin eta infantil mailako probak egingen dira. Proba nagusia (kade, junior, senior, heldu eta ezinduak) eguerdiko 12,30etan hasiko da. Zirkuitoa 2.000 metrokoa izanen da eta adinaren arabera, itzuli kopurua aldatuko da.

Beti Gazte elkarteak 9,3 milioiko aurrekontua izanen du aurten

Beti Gazte elkarteak 9.357.000 pezetako diru sarrera-irteerak izanen ditu aurten, martxoaren 12ko batzarrean onartutako aurrekontuaren arabera.

Gasturik haundienak futboleko zazpi taldeek eta zelaiaik –kasik 4 milioi pezeta– eta sokatira taldeak –2 milioi pezeta, Irlandara egindako bidaia tarterko– sortuko dituzte. Sarreari dagokienez, futbolariek 2.865.000 pezeta, sokatirak 1.800.000 eta dirulaguntzek 2.500.000 pezeta emanen dituzte.

1.346.377 pezetako irabaziekin akautu zuen Beti Gazteak joan den urtea, 10.497.467 pta-

ko sarrera eta 9.151.090 pezetako gastuekin.

Bertzalde, azken urteetan elkarte epaitegietan ibili da, bi kirol istripurengatik. Bietan arrazoia kendu diote epaileek eta isuna ordaintzera behartu dute. Aseguruak bere gain hartu du gasturik haundiena. Zuzendaritza batzordean ez da aldaketarik izan eta Salvador Iantzik segituko du lehendakari gisa. Bazkide batek egindako eskaria ere onartu zen. Honela, mendi taldearen ateraldietan edo futbol zelaian larrialdiren bat gertatzen denean erabiltzeko sakeleko telefonoa erostea erabaki zen.

Kizkur
Ileapaindegia
 Tel: 948 637429
 Bittiriako Plaza, 3 beheka
LESACA

Txema Etxarte
 Zolen akutxilatze eta
 bernizatze profesionala
 ☎ 948 637439 • 31700 LESACA

Lore eta landareak
 Frain auzoa • ☎ 948637826
LESACA

ANA
Janaridenda
 Bittiria, 41 • ☎ 948637944
LESACA

ETXALAR


Altxata Elkarteak egin du urteko Batzar Nagusia

Gasna Feria eta erakusketa eginen da aurten

PELLO APEZETXEA

Martxoaren bigarren igandean, hamalauan, izan zen Altxata Kultur Elkartearen urteko Batzarra. Joan den urteko kontuak eta urte honetarako asmoak agertu eta onetsi ziren, lehenik. Aurtengo nolabaiteko berritasuna, gasna feriarena da. Igaz ez baitzen plantatu, laguntza sobera ez zela eta. Aurten, ordea, gogo berriz eta indar berriz ekinen zaio, feria bera, eta ingurukoa ere, ez mantendu bakarrik, baizik eta, ahal den neurrian, indartzen joateko asmoa baitu Altxata Elkarteak. Gasna lehia-keta eta erakusketarekin batera, eskulangintzaren erakusketa, bertsolariak, etabar.

Bertze egunez egiten den Haurren Eguna atzendu gabe, noski.



Inguruko gasnarik onenak Etxalarko Ferian izanen dira aurten.

Ekaineko ekitaldi hauek, eta udazkenean, inguruko herriein gauzatu den hamabortzaldia, dira urteko nabarmenenak. Dena den, Juntarako lagun berri bat behar dute.

Hauteskundetarako prestatzen

Ekaineko hautes-

kundetarako hautagai zerrendak prestatzen ari dira. Oraingo mugimenduen arabera, hiru zerrenda izaten ahal direla iduri du. Nahiz eta hondarreko momentura arte ez da gauza segururik izaten. Dena den, ez da izen zerrendak presentatzeko egun sobera gelditzen.

Ttipi-ttapa telebistan berriemaile berria

Domigeleneko Irati hasi zaigu herriko berriemaile lanetan. Lakateneko Bordako Patxikurekin laguntzaille, orain, baina haren orde z ariko omen da, gero. Aurpegi berria ortziral arratserako.

flash

Guatemala: begirada bat

Antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiete Etxalarko irakasle, ikasle, guraso eta herritarrei "Guatemala: begirada bat" kanpainan erakutsitako esku zabaltsunagatik, herrian 204.725 pezeta bildu baitira. Jakina denez, diru hau Guatemalara bidaliko da bertan granjak eta eskolak eraikitzen laguntzeko.

Bidasoaldeko Ezkongaien Feria

Bigarren urtez, zonaldeko ezkongaien feria izan da Etxalarko Hotel-Bentan. Udaberria hasi aintzineko igandean, hainbat gauzaren erakusketa ikusi ahal izan du jendeak, hala nola, jazkerak, altzariak, janari-edariak, lore eta bitxiak. Ordu saila entretentzeko hainbat gauza.

XATURBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

• bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •
 Albistur, 39-K
 ☎ 948627542 • LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
 Tfnoa.: 948 627 514
 Beheko Plaza 8, LESAKA

Mannel Zamorano
 Bernizadurak
 Pintura
 orohar
 Bittiria, 37 • LESAKA • ☎ 989 042 671

EROSLE
 LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana
Frexkuena zugandik hurbilago
 Bittiria, 67 - ☎ 948637264

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak
 Deitu erreserbak egiteko
 Foto Goiko
 Otsango auzoa, Tfnoak: 948627503/948627519 • LESAKA

OBRA PROIEKTUAK
 ✓ Etxe berriak eraikitzeko
 ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
 ✓ Urbanizazio proiektuak
 ✓ Obra-zuzendaritza
 Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
 arkitektura bulegoa
 Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

Ablitaserako joanen dira heldu den astean eskolako haurrak

Arantza eta Igantziko eskolek hangoarekin aspaldi hasitako elkar-trukearen barrenean

OSKAR TXOPERENA

Heldu den astean joanen dira eskolako 4., 5. eta 6. mailako haurrak Tuterako ondoan dagoen Ablitas herrira. Arantza eta Igantziko eskolek hango eskolarekin aspaldi elkar-trukearekin hasitako elkar-trukearen barrenean sartua dago oraingo egonaldia. Trenez joanen dira astelehen goizean eta hango haurren etxetan egiten dituzte otorduak eta lo. Ekintza ugari dituzte prestatuak han egiteko, horien artean zenbait lantegitara egiten dituzten bisitak: Zeramika, kontserba eta olio lantegitara.

Harremana ez da honetan geldituko, ekainaren 1, 2 eta 3an han

go haurrak izanen baitira Arantza eta Igantzira etorriko direnak.



Felix Andres Mitxelena zena


Felix Andres Mitxelena hil da

Madrilen bizirik, igantziartzat jotzen zuen bere burua Felix Andres Mitxelenak. Denbora batean Madrilgo zine produktora famatuene-

kin dekoratzaile gisara egiten zuen lan eta margolari bezala ere hainbat lan zituen eginak. Urtero-urtero besta eta ifñauteetan bisitatzen gintuenak, martxoaren 16an eman zuen azken arnasa Madrilen. Goian bego.

Guatemala: Begirada bat

Antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiete Igantziko irakasle, ikasle, guraso eta herritarrei "Guatemala: begirada bat" kanpaina erakutsitako esku zabaltasunagatik, herrian 67.200 pezeta bildu baitira. Jakina denez, diru hau Guatemalara bidaliko da bertan granjak eta eskolak eraikitzen laguntzeko.



Harrobian egin beharreko lanak Herriko Etxean daude jendaurrean

Plazentekoborda dagoen lekutik beheiti egin nahi ditu harrobiak instalazio berriak. Orain Simonbaitako iturritik Plazentekobordara doaien bidea eta bertatik mendira doaiena ere pasurik gabe geldituko zirenez, planoan ageri den bezala, bide berria erreka beheiti zuzenean egitea proposatu dute harrobiko jabeek, eta mendi aldera joatekoa, berriz, Arantzako errepide ingurutik zuzenean Igelarko bordara.

Udalak, eskaera Nafarroako Gobernura bidertatu baino lehen, apirilaren 9a bitartean jendaurrean paratu nahi izan du proiektu berria, zenbait herritarren lur-eremuak ukitzen dituelako eta nahi duenak xehetasun gehiago eskatu ahal izateko.



DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIK •
 2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
 10 minututan zuk nahi duzun kolorea
 Profesionalentzat prezio berezia
 Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

BERRAZUN
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 © 948627573 • LESAKA

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donoztebe

MALDAERREKA, S.L.
 24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

LESAKA

ARANTZA



Korrika Kulturala

Giro ezin hobean eta eguraldiak lagunduta ospatu zen Korrika Kulturala. Asteburu bete-betea izan zen eta aipatzekoa da Korrika Txikin herrian lasterka buelta bat emateko bildu zen jendea eta igandean egin zen herri bazkari jendetsua. Bertzalde, komunikabidee, eta telebistek bereziki harrera berezia eman diote ekitaldi hauei. TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ikusi izanen dituzue irudiak eta astearte honetan, martxoaren 23an, ETBko Bertatik Bertara saioan eman zuten telebistan hemen grabatutakoa.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

flash

- ❖ **Guatemala: begirada bat**
Antolatzaileek eskerak eman nahi dizkiete Arantzako irakasleei "Guatemala: begirada bat" kanpian erakutsitako esku zabaltasunagatik. Dirua Guatemalara bidaliko da, granjak eta eskolak eraikitzen laguntzeko.
- ❖ **Mendiko lanak**
egiteko hiru gazte kontratatu ditu Udalak, hilabete pare baterako. Langileak Jabi Etxepare, Aitor Telletxea eta Juan Kruz Lizardi dira. Bertzeak bertze, zerrakura bat eginen dute Zuzazprunko errekan eta beharrezkoak ez diren zerrakura batzuk bilduko dituzte.
- ❖ **Kanposantua haunditzea**

Aspaldiko gaia da, herritar nahiz udalarentzat. Dirulaguntzik ez dute eman baina esperantza ez du galdu Herriko Etxeak eta obra proiektua enkargatu du.

Mozorroen besta larunbat honetan ospatuko da

Goizetik gauera, egitarau zabala prestatu dute

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko mozorroak, inauteriak akautu direnetik hilabete pare batera, beraien besta antolatu dute. Larunbat honetan izanen da, martxoaren 27an. Urtero be-

zala, kontuak egin eta bitartean, egitarau zabala izanen duen egun eder bat plantatu dute. Goizeko 9etan gosalduko dute trikitixak alaiturik. Gero, herrian ibiliko dira poteo herrikoian, oraingoan ere tri-

kitilarien laguntzaz. Eguerdian pilota partiduak izanen dira eta gero Ekaitza elkartearen bazkaria. Gauean, mezaren ondotik herri kirolak izanen dira pilota plazan eta azkenik, bertso afaria. Afari honetara

orain artean mozorro izandako guztiak joaten ahal dira eta horretarako lehenbailehen izena eman behar da ostatuetan. Afalondoan Mikel Salaberri bere musikarekin giro polita jarriko du plazan.

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

 **ALBERGIA**
JATETXEA
© 948634179
ARANTZA

 **IRU BIDE**
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

 **BORTZIRI**
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: 948 637 266

BOUTIQUE
Lulu
NEURRI BEREZIAK
38tik 66ra bitarteko neurriekin janzten zaitugu, arropa gazte eta moda-modakoekin.
Besta eta ospakizun ezberdinetako jauntxietan ere aukera zabala eskaintzen dugu.
Hondarribia 15, gibelaldea
Tel.: 943 616165 • IRUN

Denboraldi berri bati ekin dio Ariztigain kanpalekuak

San Jose egunean zabaldu zituen atea

JAIONE ETA ALBA

Joan den asteburu luzean, San Jose egunean zehazki, zabaldu zituen bere atea Ariztigain kanpalekuak, denboraldi berri bati hasiera emanez. Ortziral arratsaldean txokoltea izan zen hurbildu ziren guzientzat eta orain, ekaina arte asteburuero irekita egonen da. Ekainetik aitzinera aste osoan zabalduko dute, iraila arte gutti goiti beheiti.



Kanpinak antolatzen dituen zaldi ateraldiak uda partean hasiko dira.

Artxibokoa

Zuzendaritza Batzorde berria Ulibeltzak elkarte

Martxoaren 6an hautatu zuten Ulibeltzak elkartearen bi urtez egonen den zuzendaritza batzorde berria eta 13an bildu ziren kargua utzi eta berria hartzen dutenak. Hauek izanen dira bi urtez elkarteko kon-

tu eta erabakiak eramanen dituztenak:

Lehendakaria: Miguel Angel Otxandorena.

Idazkaria: Josetxo Apeztegia.

Diruzaina: Daniel Bertiz.

Eta gainontzekoak, Me-

liton Irazoki, Aitor Ibarra, Juan Antonio Ibarra, Aitor Apeztegia eta Jose Luis Otxandorena.

Asteburu Kulturala

Asteburu Kulturalaren egitarauaren berri zabalda eman dugu az-

ken aleetan. Honen gain aipatu behar dagoeneko guzia prest dagoela eta orain ederki pasatzea bertzerik ez dela falta. Aurrerapen gisara erraten ahal da igandean pilotalekuan sorspresa bat izanen dela.

Adintuentzako oporren programan izena emateko epea zabalik

Adintuentzako oporren programan parte hartzeko izen emateko epea zabalik egonen da apirilaren 15a bitartean. Horretarako, Baztan, Bortziriak eta Malerrekako Gizarte Zerbitzuetara joan behar da.

Programa hau 65 urtetik goitikoei, erretiroko pentsioa dutenei, 60 urteak beteak izanik bertze erako pentsiodunei eta senar-emazte edo horrelako lotura dutenei zuzenduta dago.

Programa honek bidaiazteko aukera zabalda eskaintzen die: Penintsula barnean eta Baler Irletan zortzi eta hamabortz egun, 1999ko urritiko 2000.eko apirila arte eta Kanariar irletan, Portugalen (zortzi egun) eta ibilbide kulturalak (sei egun) 2000. urteko otsailetik urte bereko ekaina arte.

Eskatzaile eta ezkonkidearen nortasun agirien fotokopia bertzerik ez da aurkeztu behar, bidaiazteko aukera hau probexteko.

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



GAZTANDEGIA

LIZUN Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



APEZTEGIA BERRIA

B U R D I N D E G I A

Baratzerako behar dituzun erreminta guziak

Elizagibela, 1
31740 DONEZTEBE

☎ 948 450 994

BAZTAN IKASTOLA Udal Eskola Publikoa



FOTO MENA



BAZTAN BALLEKO UDALA

EUSKERA GURE AUKERA!



Aurreinskripzioa: Martxoaren 29tik apirilaren 16ra

© 948 452448

**BORTZIRIETAKO
HIRI-HONDAKINEN
MANKOMUNITATEA**



**BORTZIRIETAKO
OINARRIZKO
GIZARTE ZERBITZUEN
MANKOMUNITATEA**

*Herritarrak informatzeko
tresna egokia izateagatik*

Zorionak eta aunitz urtez!

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza DBH

Lanbide Heziketan eskaintza ZABALA

Batxilergoetan eskaintza OSOA

LEKAROZ: ➤ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

➤ LOGSE BATXILERGOA I eta II

- Natur eta Osasun Zientziak / Injinerutza Ibilbidea
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Teknologia*

➤ Erdi Mailako Heziketa Zikloa

- Iharduera Fisikoak eta Kirol Iharduerak
- Ingurune Naturelean Gidatzea

ELIZONDO: ➤ Lanbide Heziketa Egokitua

➤ Lanbide Sarrerako Programa Berezia

Bizitza Heldu eta Aktibora igarotzea

➤ Lanbide Sarrerako Programak


- Bulego eta Saltetxe Txikirako Laguntzailea
- Soldadura eta Galdaragintza Laguntzailea

➤ Erdi Mailako Heziketa Zikloa

- Kudeaketa Administratiboa
- Mekanizazioa

➤ Goi Mailako Heziketa Zikloa

- Administrazioa eta Finantzak



* Eskararen arabera

INSTALAZIOAK

- ◆ **5 Laborategi:** Fisika, Kimika, Biologia, Geologia.
- ◆ **5 Informatika gela:** Multimedia, sarea, Autocad, Internet
- ◆ **3 Marrazketa gela**
- ◆ **2 Teknologia gela**
- ◆ **Gizarte tailerra**
- ◆ **7 Ikusentzuteko gela**
- ◆ **2 Liburutegi:** 20.000 ale
- ◆ **Tailerrak:** soldadura, pneumatika-hidraulika, kontrol numerikoa, fabrikazio mekanikoa, bizikleta,...
- ◆ **Kirol Instalazioak:** kiroldegia, frontoia, 2 gimnasio, atletismo pista, futbol zelaiak, kanpoko pistak, zalditegia,...
- ◆ **Jangela:** DBHko 1. ziklokoentzat.
- ◆ **Garraio Zerbitzua:** Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak.



I.E.S. LEKAROTZ ELIZONDO B.H.I. Bigarren Hezkuntza Institutua



LEKAROTZ

Uharte auzoa, z/g
31795 LEKAROTZ (Baztan)
☎ 948 58 18 03
☎ 948 58 18 36
✉ Posta Elektronikoa
ies.lekarotz@cfnavarra.es

ELIZONDO

Diputazio Etorbidea, z/g
31700 ELIZONDO (Baztan)
☎ 948 58 18 05
☎ 948 58 18 40
✉ Posta Elektronikoa
ies.elizondo@cfnavarra.es

Izen ematea: 1999ko martxoaren 29tik apirilaren 16a bitarte

OHARRA.- Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte gurekin kontaktuan.

DONEZTEBEKO SAN MIGUEL ESKOLAK ETA DBHko INSTITUTUAK



- 3-6 urte bitarteko hezkuntza
- Garraioa
- Jantokia
- Matrikula epea zabalik:
Martxoaren 29tik
Apirilaren 16a bitarte

ttipi-ttapa ri zorionak! *Eutsi!*

SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa

• ELIZONDO •

Matrikulatzeko epea:
Martxoaren 29tik
apirilaren 16ra

© 948 581 808

ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!



Lasagako bidea urbanizatzeko ia bederatzita milioi terdi aurrikusi du udal aurrekontuak. Artxibokoa

68,4 milioi pezetako udal aurrekontua izanen da aurten

Ia 34 milioiko inbertsioak egingen dira

IBAN ISASI

68.440.944 pezetako aurrekontua izanen da aurten Iturengo Udalak. Gasturik haundiena inbertsioetan egingen da, 33.878.399 pezeta, hainbat lan egitea aurrikusi baitu Udalak. Honela, mendiak hobetzeko, 10.980.000 pezeta erabiliko dira; Lasagako bidea urbanizatzeko 9.394.302 pezeta; suteak aurrikusteko proiektuan, 8.900.000 pezeta; ondare historikoa berreskuratu eta seinalizatzeko 3 milioi pezeta; langabetuekin egin beharreko obretan 2.334.977 pezeta eta Lasaga-Amezti bidea zolaberritzeko 2 milioi pezeta. Ordenagailua erosteko eta obren zuzendaritzarako ere milioitiki goiti bideratuko da.

Gastu hauei aurre egiteko, bertzeak bertze, 21.520.903 pezetako dirulaguntza espero da Nafarroako Gobernutik.

Herriko Ostata itxi dute

Otsailaren azken aldera,

ateak itxi zituen Iturengo Herriko Ostata, errenta ordaintzeko zailtasunak zirela eta. Zortzi hilabete inguruko zorra zuten, udal batzarrean aipatu zenez. Dena den, baldintza berriak atera dira, bertze norbaitek ostata hartzeko interesik balu. Kontratu hortan, bi milioi terdi eman behar ditu ostata hartzen duenak, milioi terdi Herriko Etxearentzat eta milioia ostatan konponketak burutzeko. Hilabeteko errentaren hasierako prezioa 70.000 pezeta + BEZa da.

Korrikaren afaria

Aurtizko ostatuan, martxoaren 13ko arratsean, hogeita bost lagun elkartu ziren afaltzera, Korrikaren alde. Afariaren ondotik giro ezin hobea izan zuten afaltzera joan zirenek, trikitilariak izan baitziren lan hori egiten: Ainara, Aitziber, Arkaitz eta Leire, hiru lehenengoak aurtiztarrak eta laugarrena arratsarra.



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin


Telefonoak: 948451841 / 607 978656

e-mail: ados@iname.com


Parrokia, 9, behea • DONEZTEBE

DONEZTEBEN ETXEBITZA BERRIEN PROMOZIOA (Erreserbak egiten hasiak dira)

ZINEMA ONDOAN 12 ETXEBITZTA



OSASUN ZENTRO ONDOAN (3 PISU ETA 8 APARTAMENDU) (VPO: NAFARROAKO GOBERNUAK SUBENTZIONATUAK)



UDALETXE ONDOAN (2 PISU ETA 2 DUPLEX)



MALERREKA

Zaborra biltzeko 20 milioi pezetako kamioia erosiko du Mankomunidadeak

Kristalak biltzeko zaborontziak ere jarriko dira herriz herri

PATXI IRIARTE

Otsailaren 8an egin-dako batzarrean, zaborra biltzeko kamioia erostea erabaki zuen Malerrekako Mankomunitateak. 19.844.417 pezeta gostako da, horietatik 10.459.720 pezeta txasisarenak eta gainerako 9.384.697 pezetak kajarenak. Kamioia erosteko Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasoko du Mankomunitateak, Plan Zuzentzailearen eta Hirurteko Azpiegitura Planaren bitartez.

Beira eta kristalaren bilketa

Batzarre berean, ECOVIDRIO-VIDRALA enpresarekin kontratua sinatu zen, beira edo kristalaren arazoari aterabidea emateko. Audio-ko enpresa hau beirarako ontziak paratzeaz eta hauen bilketaz ardurtuko da, Miguel San Miguel Mankomunitateko lehendakariak adierazitakoaren arabera. Beraz, zerbitzu honen ez dio gasturik ekarriko Mankomunitateari.



Kristalak biltzeko zaborontziak jarriko dira Malerrekako herrietan. Argazkian, Elgorriaga eta Doneztebe.

Foto Zaldua

Donezteben zortzi bat ontzi paratzeko asmoa dago, eta gainerako herrietan bana.

Otsailaren 22ko batzarrean, berriz, zaborra, papera eta beira biltzeko zenbait zaborontzi erostea erabaki zuen Mankomunitateak, 10.260.500 pezetako aurrekontuarekin. Hemen ere Nafarroako Gobernuaren laguntza izanen da, %70 ingurukoa.

Halere, zaborraren

arazoa ez da bakar-bakarrik Malerrekakoa.

Transferentzia planta Legasan?

Otsailaren 8an, Acellariako gerentearekin bildu ziren Malerreka eta Bortzirietako Mankomunidadeko eta Baztango Udaleko ordezkariak. Enpresa honek Legasan duen lan-tegiko lurretan transferentzia planta jartzeaz solastu zuten. Bilerak

emaitza ona izan zuen eta orain, obrak egiteko Nafarroako Gobernuarekin solastu behar da. Aipatu behar da, eraberean, hiru zonaldeek –Malerreka, Baztan eta Bortziririk, alegia– zaborontziak garbitzeko kamioia erosi dutela elkarrekin, eskualde osorako 23.907.600 pezeta gostatu da eta Nafarroako Gobernuak %70 inguru ordaindu du.

Etkez etxeko bi langile

Bertzalde, etkez etxeko bi langile lanpostu betetzeko Malerrekako Mankomunitateak deitutako lehiaketa-oposaketan M^a Luisa Zubigarai Mitxelenak eta Rosa M^a Ibarra Ibarrek lortu dute puntuaziorik altuena. Bi langile hauen kontratua finkoa izanen da.

Formigalera eskiatzera joateko bidaia


Larunbat honetan, martxoak 27, Huescako Formigalera eskiatzera joateko bidaia antolatu du Erreka mendi taldeak. Autobusean 54 lagunendako lekua izanen da eta seguraski beteko da, gero eta haundiagoa baita eskiatzeko afizioa gure inguruan. Autobusa eta forfaita 4.300 pezeta gostako zaie Errekako kideei eta 4.800 bazkide ez direnei. 14 urtetik beheitikoei, berriz, 3.600 eta 4.100 pezeta. Autobusa bakarrik behar izanez gero 1.500 pezeta ordaindu behar da.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 306



AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

GOIZUETA

Diru-sarrera eta irteera askoren berri izan zuen Udalak bere azken batzarrean

Su-hiltzaile taldea ekipamenduz ongi hornitzen ari dira Iruñetik

ESTEBAN AROZENA

Aurretik jakinaren gainean egon arren, batzarretan ematen diete zinegotziek behar duen ofizialtasuna Herriko Etxera datozen edo bertatik atera behar dute di-
ruei. Martxoaren 12an, esaterako, publiko egin ziren eskoletako berogailu sistema berriaren obrak ordaintzeko Nafarroako Gobernuak eman beharrekoa zuen subentzioaren azken zatia, 3.700.000 pezeta.

Su-hiltzaile boluntarioen taldea azpiegituraz eta ekipamenduz ongi hornitzen ari dira Iruñetik. Orain dela hilebete batzuk ia sei milioi pezeta eman zituen Barne Departamentuak gaur egun parkean egiten ari diren lanentzat. Orain beste 725.000 pezeta jaso dira, taldearen gastu orokorrenentzat.

Dena den, herriko beharrei aurre egin ahal



Herritar asko Asierrekin egon zen finalean

Herritar askoren babesa izan zuen Asier Olaizolak Logroñoako finalean. Argazkian horietako batzuk txapeldunarekin.

izateko diru sarrerarik garrantzitsuenak bertan sortzen dira, mendian batez ere. Zumarrenean parajearen dago Udalak subastatutako azken lotea, 10.000 alertze eta insignis pinuez osatua. Maderas Urmendirena izan zen eskaintzarik

aberatsena, 16.700.000 pezetakoa, eta mendia berari ematea erabaki zuen Udalak.

Diru-irteerak ere asko izaten dira, gehienak ohikoak. Ez-ohikoen artean euskararen aldeko hainbat ekitaldientzat joan ziren azken batza-

rreko gehienak. Esate baterako maiatzaren 9an ospatuko den Herri Urratsek 25.000 pezeta jasoko ditu Herriko Etxetik, Ibilaldiak beste 25.000, eta egun haue-
tan Euskal Herrian bar-
na dabilen Korrikak 40.000.

Paper eta kartoi bilketa eskolako neska-mutikoen esku segitzea nahi du Udalak

Jakina den bezala, herriko kartoi eta paper bilketa eskolako 8. mailako ikasleen esku dago azken lau urteotan. Ikasketa bidaiarako diru pixkat biltzen dute horrela. Orain ikaragarri jaitsi denez erabilitako paperaren prezioa, zerbitzu hau uzteko zebiltzan neska-mutikoak, eta horrelaxe adierazi zioten Udalari. Bilketa hau mantentzearen aldekoa da udalbatza eta hartutako erabakiarekin zapela batekin bi buru estaltzea lortuko du: 30.000 pezeta emanen dizkio ikasle taldeari urte osoan zerbitzuari eustearen truke. Horrela, herriko gaztetxoei laguntzeaz gain, hemen hain sustraitua dagoen ohitura ekologiko honi eutsiko zaio.

ARESO

Drogomenpekotasunari buruzko tailerrak eginen dira gurasoekin

Sokatira taldeari 125.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalak

JUANA M^ª SAIZAR

Drogomenpekotasunaren prebentzioaren barruan tailer batzuk egin nahi dira. Tailer hauek hamaika urtetik gorako umeen gurasoekin egin

nahi dira. Drogak ezagutzera, gurasoen erantzuna drogaren aurrean, presioak eta eraginak eta azkenik, utzi behar al diogu gazteari erabakiak hartzen? izanen dira landuko dituzten

gaiak. Asteartetan, arratsaldeko 5etan izango da eskolan, apirilaren 14, 21, 28 eta maiatzaren 5ean.

❖ **Garazi-Lizarrako** akordioaren azalpena egin zen martxoaren

5ean Udaletxean, herriko talde guzietan.

Traktorearen ITVa pasatu zen herriko plaza zaharrean martxoaren 11n.

❖ **125.000 pezetako** dirulaguntza eman dio

Udalak sokatira taldeari.

❖ **Emakumearen Eguna** ospatu zen martxoaren 8an, afari batekin eta amatasunari buruzko antzespen labur batekin.

LEITZA

Lizarra-Garaziko akordioari buruzko mahaingurua

Ostiralean izanen da, arratsaldeko 7,30etan zineman

JOSEBA AZPIROZ

Ostiral honetan, martxoak 26, arratsaldeko 7 terdietan, Lizarra-Garaziko akordioaren inguruko hitzaldi-debatea izanen da herriko zineman. Bertan, Fernando Barrenak (HB), Begoña Errastik (EA), Markel Olanok (EAJ), Rafa Diezek (LAB) eta ELA eta Elkarriko ordezkariak parte hartuko dute. Iñaki Zabaletak bideratuko du hitzaldia. Ohiko zine emanaldia, bilera ondoren emanen da.

Oihan aprobetxamendua

Udalak, Ozizpe inguruan dagoen 2.178 haritz-amerikarrez osatutako lote bat ateratu du subastan. Guztira 1.889 metro kubiko zur eta 196 metro kubiko egur txiki egiten dute eta hasierako prezioa, 13,7 mi-

lioitakoa du. Proposamenak martxoaren 25eko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira.

Erraldoi konpartsa

Erraldoi konpartsa bat osatu nahi da herrian. Interesazinez gero, agertu zaitez larunbat honetan, martxoak 27, arratsaldeko 7etan, Aurrera elkartera.

Presoen aldeko argi itzaltzea

Euskal preso politikoaren eskubideen erresetua aldarrikatzeko egin zen argi-itzaltzea, oihartzun handia izan zuen herrian.

Ordaindu gabeko zergak

Udalak, bando batean jakinarazi duenez, martxoaren 31n, 1998. urteko ordaindu gabeko ordain-agiri guztiak Agente Exekutibora bidaliko ditu.



Herritar asko Asierrekin egon zen finalean

Martxoaren 9an eskolako seigarren mailako berrogei bat ikasle Itzaireren zuhaitz aldatzen aritu ziren. Iberoraino autobusez joan ondoren, bide zaharrak ikusiz oinez igo ziren. Udal langileek aldaxkak sartzeko zuloak prest zituzten eta nesk-mutikoez gereziak, lizarrak, urkiak eta haritzak sartu zituzten. Ondoren, Iberoko ola zaharraren aztarnak ikusteko beta ere hartu zuten.

Argazkia: Jaione Astibia


Herri lurretan bazkatzen diren aziendengatik 1.687.872 pezeta jasoko ditu aurten Udalak

Udalak 1.687.872 pezeta jasoko ditu aurtengo larre sari gisa. Herri lurretan bazkatzen duen zaldi-azienda edo behi-azienda bakoitzeko, 1.374 pezeta ordaindu behar dira eta ardi-azienda bakoitzeko, 145 pezeta. Hona hemen aurtengo azienda kopurua:

	Komunalean ibiltzen direnak	Komunalean ibiltzen ez	Denetara
Zaldi-azienda	202	25	227
Behi-azienda	316	791	1.107
Ardi-azienda	6.732	979	7.711

Herri-lur edo komunalean bazkatzen duten aziendak berriz, larreari dagokionez horrela sailkatzen ditugu:

	Haritz	Aizan	Urdola	Besteak	Den.
Zaldi-azienda	79	54	49	20	202
Behi-azienda	110	22	123	61	316
Ardi-azienda	2.887	1.053	114	2.678	6.732



Urtebeteko konexioa gehi
posta elektronikoko helbidea:
10.000 Pta. + BEZ

KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu orain. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan.

Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

(+34) 948 631188

BAZTAN

Ipuin eta komiki lehiaketa antolatu du Euskara Zerbitzuak

Lanak apirilaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuak, Gazte Asanbladaren laguntzarekin antolatutako ipuin eta komiki lehiaketan lanak aurkezteko epea apirilaren 23an akituko da.

Lanak bakarka zein taldeka aurkezten ahal dira eta hiru maila hauen arabera sailkatuko dira: A mailan, 12, 13 eta 14 urtekoak; B mailan 15, 16 eta 17 urtekoak eta C mailan 18 urtetik goitikoak. Lanak eskuaraz aurkeztu beharko dira eta gai librean. Ipuinei dagokienez, A mailakoek 3 eta 5 orrialde bitarteko lanak egin beharko dituzte, B mailakoek 5 eta 7 orrialde artekoak eta C mailakoek 7 eta 10 orrialde artekoak. Komikiek gehienez lau orrialde beteko dituzte, eta inoiz ez dira izanen DIN A3 baino neurri handiagoak.

Epaimahaiak lanen irudimena, sormena, itxura eta Baztango mintzairaren erabilera hartuko ditu saria nori eman erabakitzean. A mailan, sari nagusia 20.000 pezetakoa izanen da, B mailan 30.000 pezetakoa eta C mailan 50.000 pezetakoa.

Xehetasun gehiago Euskara Zerbitzuan (948 581007 telefonoa).



FOTO MENA

Santa Ageda bezpera eta inauteak

Euskal Herriko ohitura zaharrei etsi, aurren ere Baztan ikastolakoa Santa Ageda bezperan atera ziren beren makil eta kantuekin herria alaitzera eta, bidenabar, urtetsak biltzera. Inauteak ere ederki ospatu zituzten, batez ere astelehen arratsaldean, 240 bat lagun kalderoz eta danbor jolez jauntzi ziren herrian barna egindako desfilean parte hartuz.



Doike euskara taldearen egoerari buruzko hausnarketa egiteko jardunaldia izanen da larunbatean

Larunbat honetan, martxoak 27, arratsaldeko 5etatik aitzine-ra Elizondoko Lanbide Eskolan batzarra egiteko deia zabaldu du Baztango Doike Euskara Taldeak. Batzarraren xede nagusiak, taldearen egoeraren azterketa eta motibazio saioa egi-

tea, hausnarketa eta egitasmo berrien aurkeztea dira. Saioaren hasieran, Doike zer den, taldearen historia eta urte hauen balantzea egingen da. Gaurko egunean, Doike taldeak bere ekarpena egin nahi dio Euskararen Kontseiluaren proposamenari

eta aldi berean, Baztango Euskara Batzordea sortzeko proiektua ikusiko da.

Gero, afaria izanen da Elbeteko Herriko Ostatuan. Txartelak Elizondoko Intza ostatuan erosten ahal dira, 1.500 pezetaren truke.

flash

Gimnasia ikastaroaren akabila

ospatuko dute Arkupeak elkarteko erretiratuek apirilaren 8an, Baztango udal polikiroldegian. Elizondoko ekitaldia goizeko 11etan hasiko da eta bi ordu terdiko iraupena izanen du. Gimnasia ikastaroan ikasitako ariketak erakutsiko dituzte partehartzaileek.

Azkarate eta Bozateko urak

Azkarateko ur-hartze, eramate eta depositoaren lanak Urdazubiko Bengoetxea eraikuntza enpresak egingen ditu, 13.270.486 pezetaren truke. Bozateko depositoaren lanak ere Bengoetxea berak egingen ditu, 10.872.976 pezetan.

Argazki erakusketa

Martxoaren 11tik 25era zabalik dago Arizkunenea Kultur Etxean Erratzuko Joxe Erregerena eta Elizondoko Juan Lameriñasen argazki erakusketa.

La Asturiana
ostatu • jatetxea
Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

ARROPA DENDA
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

Almandozko edateko urari kloroa ez emateagatik espedientea

Orai deposito berriarekin lasai daudela dio Severino Landa alkateak

TTIPI-TTAPA

1997 eta 1998. urtean Nafarroako Gobernuko Osasun Publikoaren Institutuak egindako sei azterketen arabera, Almandozko ura ez zen edateko modukoa. 1997ko apirilaren 8an, uztailaren 16an eta urriaren 27an eta 1998ko hilbeltzaren 19an, maiatzaren 6an eta azararen 13an egindako neurketetan ez zen klororik azaltzen eta ura ez zen edagarria.

Nafarroako Gobernuak zabaldutako espedientearen arabera, honen berri eman zitzaion Almandozko alkateari eta konponbidea jartzea eskatu zitzaion Baztango Udalarari. Orai, Osasun Departamenduko kontseilariak multa jarri edo ez erabakiko du. Multa jartzekotan, milioi erditik goitikoa izaten ahal da.

Balleko Udalak otsailaren 26ko Gobernu Batzordean eztaba idatu zuen gaia. Miguel Angel Adin alkateordearen erranetan, «Baztanen auzo aunitz dau-



Severino Landa Almandozko alkatea, ur-deposito berriaren ondoan.

Argazkia: Diario de Navarra

de eta 30 bat deposito izanen dira. Duela urte guti arte gehienek ez zuten kloratzeko sistema automatikorik. Alkateek borondatez egiten zuten lana zen». Duela zenbait urte, gisako espediente jaso zuten Erratzuko urengatik eta orduan, milioi erdiko multa jarri zioten Balleko Udalarari.

1997-99 Hirurteko Planean 18 depositorako laguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

Almandozko deposito berria ere akitu da eta laster lanean hasiko da.

Severino Landa Almandozko alkateak onartu duenez, garai hartan urari ez zitzaion klororik ematen, baina uraren kalidadea ona zen. «Alkateak egunero egiten zuen lana zen. Orduan ez ginen ohartu eta ez ginuen egin baina ez zen problemik izan. Edozein gisara, deposito berriarekin orai lasaiago gaude».

flash

Argi berriak Hirurteko Planean

Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Elbete, Lekaroz, Almandoz, Irurita, Zozaia eta Sorneatik Santxotenara argiak berritzeko inbertsioa Hirurteko Azpiegitura Planean sartu du Nafarroako Gobernuak. 38.308.820 pezetako aurrekontua du proiektuak eta Iruñetik kasik %68 subentzionatuko dute (26.207.012 pezeta). Balleko Udalak, aipatutako lanak eta egiteko lehiaketa deialdia zabaldu du eta aurrekontua osatzeko falta den dirua lortzeko mailegua eskatuko du.

Parkinsonari buruzko solasaldia ortzegunean Arizkunenean

Ortzegun honetan, martxoak 25, arratsaldeko 7etatik aitzinera, Parkinson eritasunari buruzko solasaldia izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Parkinsonaren Nafarroako Elkarteak (ANAPAR) elkarteak antolatutako ekitaldian Alfredo Martinez Larrea doktoreak parte

hartuko du. Nafarroako Ospitalean Parkinsonaren ikertzailea da doktore hau eta eritasun honen diagnostikoak sortzen duen inpaktuari buruz ariko da.

Eritasun honen inguruko ekitaldiekin segituz, apirilaren 17an informazio-mahaia paratuko da eta dirulaguntza eskatuko da.

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asleartetik ortzirala betatik aitzinerat
lanuntzia eta besta egunetan zabalik.
© 948 452121 • LEKAROZ



**ZUBIRIA
MINDEGIAK**

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**UDABERRIKO
TELAK ETA ARROPAK**

ESKULANERAKO MATERIALAK

SARA

Eskola publikoko euskara erakasle postu erdia ez da kenduko

Gurasoek bozkarioz jakin zuten berria Paueko Prefeturan

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Martxoaren 4tik 15a arte ikastetxe publikoko ikasleen burasoen eskolako lokalak okupatu dituzte klase tenoretan, Inspekzio Akademikoak euskarazko postu erdi bat kentzeko hartu erabakiaren salatzeke. Egunero, 20 bat lagun bilduz erakutsi dute erabaki hori ez zutela onartzen, kaltegarria bailitzateke irakaskuntzarentzat. Martxoaren 16an, 40 buraso eta auzapez jauna Pauerat abiatu ziren autobusez, Eskola Karta finkatzeko bilera garrantzitsua baitzen Prefeturan. Bilkur hortako erabakiak bozkario haundia eman zien gurasoei, azkenean Sarako postu erdia ez baita kenduko.



Eskolako lokalak okupatu dituzte gurasoek klase tenoretan.

Ihiztari eta laborarien afaria

Martxoaren 6an, urte guziz bezala, herriko ihiztari eta laborariak Omordian bildu dira basurde jateko. Hor ziren baita gonbidaturik Berako ihiztari batzuk, ihizi kontutan ez baitzaio mugari kasu ematen. 120 lagunek giro paregabean pasatu zuten arratsa, ihiztarien eta laborarien arteko ha-

rremanak bide onetik doazelaren marka, dudarik gabe! Horien erranetan, aurtien iraila eta urtarrilaren artean 14 basurde hilak izan dira, iaz baino 3 gehiago.

Josta Blai

Martxoaren 11n, Josta Blai irrati jokoa lehena partida iragan da Sarako Gau Eskolarentzat eta lehiaketa borrokatu baten ondotik,

sartarrek puntu bakar batez galdu dute Hazpandarren kontra. Finalerdietara pasatzeko baitezpadakoa izan da apirilaren 8an Donibane Lohitzunen kontra irabaztea. Zuek ere gure ordezkariak laguntzen ahal dituzue, Gure Irratia entzunez 8etatik aintzina eta galderen arropostuak emanez telefonoaren bidez (0559593001).

flash

❖ **Errugbi taldeek** sasoina goiz bukatu dute, martxoaren 13an iragan zen partidaren ondotik. Bokaleko zelaian jokatuta zuten partida Narosseko taldearen aurka 13-10 galduz. Agian, urrunago joan dira heldu den urtean!

❖ **Korrika Kontzertua** 100 pertsona baino gehiago bildu ziren Omordian, joan den martxoaren 5ean, Korrika kulturalaren kari antolatu kontzertuaren ikusteko. Antolatzaileek musika talde *ttiki* edo ezezaguneri jotzeko parada ematea biziki inportantea atxematen dute, jende ainitzik ez baldin badute ekartzen ere. Ondoko hilabetetan, bide beretik segitzeko asmoa berretsi dute.

ZUGARRAMURDI

Lesakara mendi ibilaldia egin zen

Hogei lagunek parte hartu zuten

KORO ETA MARGARI

Martxoaren 1ean mendi irteerak egiten hasi zen urtea bete da (lehenbiziko hura Zugarramurdi-Elizondo izan zen). Tarte huntan bertze bortz egin dire: Baigorri, Ibardin, Senpere, Lizuniaga, Lezetako-borda eta azkenean gaur den otsailaren

28an, Lesakara. Oinezkoak 20 lagun (eta zakur bat) izan ziren, gero, usadioa den bezala bertze batzuk gehiago hurbildu ziren Lesakara kotxeak ekartzeko aitzakiarekin eta horrela 37 lagun bildu ziren bazkaltzen Koxkontan.

Sagardotegira

Sagardotegi sasoi-



Hogei laguneko taldea gan zen Lesakara oinez otsailaren 28an.

nean garela eta martxoaren 13an berrogeita sei lagun bildu ziren autobusez Urnietako Elutxeta sagardotegira gateko. Bidai hunek izan omen zituen bere bitxi-

keriak, baina batez ere aipatzekoa izan omen zen Andresek egin zituen gidari lanak, mikrofona eskutan hartuz xehetasun guztiak ematen baitzituen:

«*ikusten duzuen hori torre eiffel duzue eta bertze bide hortatik Manhattanera joateko...*» eta halako batzuekin arras bidaia alai egin omen zuten.

EZKONTZAK

Fermin Goizueta Apeztegia eta **Ainhoa Baleztana Santesteban**, Aurtizkoak, otsailaren 27an.

Niguel Angel Sukunza Zabaleta eta **Marina Jimeno Sarasua**, Leitza eta Donostiakoa, martxoaren 6an.

Igor Almandoz Ortigal eta **Susana Beramendi Rivera**, Donostia eta Bera-koa, martxoaren 13an.

Felipe Garcia Herrero eta **Maria Mercedes Pina Esarte**, Teruel eta Elizondo-koa, martxoaren 6an.

JAIOTZAK

Amaia Subizar Trantxe, Legasakoa, martxoaren 2an.

Olatz Subizar Trantxe, Legasakoa, martxoaren 2an.

Beñat Lazkano Etxalar, Donamariakoa, otsailaren 5ean.

Maika Violet, Sarakoa, martxoaren 10ean.

HERIOTZAK

Angel San Miguel Ruiz, Goizuetakoa, martxoaren 8an, 57 urte.

Genoveva Elgorriaga Irazoki, Berakoa, martxoaren 1ean, 93 urte.

Florentino Juanikotena Mortalena, Lekarozkoa, martxoaren 5ean, 65 urte.

Pilar Bikondoa Iturralde, Elizondokoa, martxoaren 11n, 71 urte.

Mari Cruz Iturralde Etxeberria, Berroetakoa, martxoaren 13an, 72 urte.

Sagrario Berrueta Goienetxe, Etxalarkoa, martxoaren 16an, 80 urte.

Juanito Lukanbio Gonzalez, Arantzakoa, martxoaren 12an, 69 urte.

Marie Dominique Guerendiain, Sarakoa, martxoaren 13an, 87 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin betea, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO  KUTXARA 



Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abuzardakoa' Mazzoa
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak •
Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

ETXANDI TXOKO

jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • ☎ 948 450 491

Eskisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Felix Andres MITXELENA

igantziarra,

Madriren hila martxoaren 16an

Emaztea: Ana M^a De Miguel. **Seme-alabak:**

Arantxa, Mikel, Txomin, Jabier, Itziar eta Idoia.

Ahizpa: Esperanza.

Betira arte.

Zure familiak ez zaitu inoiz atzenduko.

Igantzi, 1999ko martxoaren 16an


Inaxio Errandonea eta Asier Olaizola Euskal Herriko eta Espainiako txapelkunak

- Alkaiagakoak 22 eta 17 irabazi zuten Nagorerekin Asegarceren txapelketan
- Goizuetakoak Elkororekin bikote eginez, 22 eta 15 irabazi zuten Aspekoan

Euskal Herriko eta Espainiako eskuz binakako txapelketen finalak jokatu ziren martxoaren 13 eta 14an. Asegarce eta Aspe enpresen arteko ezin konpanduaren ondorioz bi txapelketa jokatu dira eta beraz bi bikote txapelkun ditu pilota profesionalak. Zoritxarrez, ez dirudi txapelketa honetan akautuko denik afera. Laster hasiko den eskuz binakako txapelketan ere, bi enpresetako pilotariek bakoitza bere aldetik jokatu beharko baitute.

Donostiako Atano IIIIn jokatu zen Euskal Herriko txapelketako finala eta Berasaluze VIII eta Beloki ziren faborito. Halere, Nagore eta Inaxio Errandonea alkaiagarrak bikote orekatsua osatzen dute. Errandoneak ongi eutsi zion Burlatakoari eta hainbat eta hainbat pilota gaixto altxatu zituen. Aitzinean, Berasaluze VIII gutti xamar sartu zen eta Nagore tantu bikainak egin zituen. Belokik ez zuen partidu ona jokatu eta Nagore eta Errandoneak beraien esperientzia nabarmendu zuten. Azkenean 22 eta 17 Irurtzun eta Alkaiagakoaren alde. Inaxiok bere laugarren txapela jantzi du txapelketa ofizialean.

Biharamonean, ASPEk antolatutako Espainiako txapelketaren finala jokatu zen Logroñoeko Adarraga pilotalekuan. Bi bikoteak nahiko parekatuak ziren: aitzinean, izugarri



Nagore eta Inaxio Errandonea Euskal Herrikoan eta Asier Olaizola eta Elkorro Espainiakoan, aurtengo txapelkunak.

jotzen duten bi pilotari gazte, Mikel Goñi oroztarrak eta Asier Olaizola goizuetarra eta gibelean, esperientzia haundiko bi atzelari, Zezeaga eta Elkorro. Partiduaren hasiera, oreka horren erakusgarri izan zen: Goñi eta Zezeaga ibili ziren aitzinetik bai-

na alde haundirik atera gabe. Partiduaren erdian hamekana berdin zuden. Elkororen zenbait hutsegiteren ondorioz, hiru tantu segidan atera zituzten Goñi eta Zezeagak. 11 eta 14koekin txapela beraiantzat izan zela zirudien, baina Asier Olaizola

goizuetarraren erakustaldia hasi zen orduan. Hamalauna berdinu ondodetik, zenbait sake izugarri egin zituen –zazpi tantu egin zituen haserako jokaldiarekin– eta partidua beraien alde jarri zuen. Azkenean 22 eta 15 Olaizola eta Elkororen alde.

Inaxio ERRANDONEA

Nagore ederki arituda eta aunitz lagundu dit

Nire txapela Nafarroako Pilota Federazioari eskaintzen diot. Ni ongi ibili naiz defentsan, baina Nagorek dena ederki egin du: seira jautsi da niri laguntzera eta ongi akautu du aitzinean. Azkeneko tantua hagitz ona izan da.



Asier OLAIZOLA

Lasai aritua finalean eta ongi ateratzen gaizkit

Neretza tarrant garai-pen garrantzitsua da, urte txarra izan baitut: ia sei hilabetez lesionatua egon ondodetik, urrian hasi eta ez nintzen sobera ongi ibili txapelketa arte. Elkorro pilotari haundia da eta pixkan-pixkan konfidantza hartzen joan naiz. Finalean uste baino lasaiago aritua naiz.



Mikel GOÑI

Hankak lehertu gaizkit eta gaizki aritua naiz

Partidu arras txarra egin dut. Olaizolak sake beldurgarriak egin ditu eta hortik joan da partidua. Zezeagak ere ongi jokatu du, baina niri hankak lehertu gaizkit eta gaizki aritua naiz.



AGENDA EGUNEZ EGUN

ZINEA

LEITZA

► **Martxoaren 26an**
My name is Joe, gaueko 10etan.

► **Martxoaren 28an**
My name is Joe, arratsaldeko 7tan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► **Martxoaren 26an**
Sustitutor, Kasino ostatuan, arratseko 10,30etan.

► **Martxoaren 26an**
Bide Ertzean, Tabu-tabar Pui ostatuan, arratseko 10etan. Erausian-ek antolatua, Kultur Errotaren barrenean.

► **Apirilaren 9an** Aní-mese Martínez, Kasino ostatuan, arratseko 10,30etan.

KULTUR ASTEBURUA

SUNBILLA


► **Martxoaren 26an**
16etan: haur jokua.
18,30etan: txokolata-da Herriko Etxean.
21,30etan: Bertso afaria Ulibeltzan (Lizaso eta E. Arozena). Ondoren Mikel Salaberriarekin dantzaldia.

► **Martxoaren 27an**
10etan: haurrendako eskulan tailerra.
15etan: sei orduko pala txapelketa (pala, frontenis...)
Ondoren triki-poteoa.
00,30etan: Gaupasa Jator taldearekin.
► **Martxoaren 28an**
11etan: mus txapelketa Ulibeltzak elkartearen.
17tan: Aizkora apus-tua, Arrospide-Olasagasti.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



Korrikaren berri ttipi-ttapa telebistan

Asteazken eta ortzegunean Korrikako irudiak ikusgai

TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ere oihartzuna izanen du Korrikak, Leitzaldetik pasatu ondoren Bortzirietan sartu baita berri astearte arratsean.

Inguru honetako kilometroetan Korrikako furgoneta-rik irudiak hartu ditugu, zuei frexko-frexko eskaintzeko. Gisa honetan, Korrikaren berri asteazken arratsean izanen duzue (martxoak 24), eta ortzegun eguerdian, berriz, errepikatua ikusteko modua ere izanen da.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.500 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 117 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 60-65 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra540
1.koa520
2.koa500
 - **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa510
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzien urruzentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
 - **Nabarrak:** urruzak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
 - **Mestizoak:** urruzak 32.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
 - **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Etxepare porno»
Luis FERNANDEZ
ALBERDANIA

'Etxepare porno: zibernetika euskalduntzeko metodoa'. Izenburu deigarri hori jarri dio Luis Fernandezek interneti buruzko liburu honi. Euskaraz idatzi zuen lehen idazlea zen Etxepare, eta hori aski gauza ezaguna omen da euskaldunen artean. Aldiz, nork ezarri zuen interneten lehendabiziko euskarazko orria? Hori ez du, seguraski, jende gehienak jakinen. Fernandezek

azaltzen duenez, Iruñeko Sex Haizegoa dendako ipuin erotikoa izan zen sarean agertu zen euskarazko lehen erreferentzia. Hortik liburuaren titulua. Sarean dagoen euskarazko informazioari buruz zein euskal zibernetikari buruz mintzatzen da Fernandez, bere estilo zorrotz eta zirikatzailean beti ere. Gogoeta pertsonalak dira gehienbat.

Pisu-etxeetan antena kolektiboak jartzeko



Aspaldi honetan telekomunikazioen inguruko kezka eta galderak ugaldtu egin dira gure artean: horietako aunitz etxebizitza kolektiboak buruzkoak dira. Izan ere, aurrerapen teknikoetara egokitze instalazioak egin behar izaten da pisu-etxeetan.

Satelite bidezko telebista dela, Xaloea edo Ttipi-ttapa Telebista dela, zenbait kate berri ikusteko antena kolektiboak jarri nahi izaten dira hainbat etxetan, eta horretarako bizilagun guzien artean ados jarri behar, noski...

Dena den, gai honengatik maiz xamar gertatzen dira bizilagunen arteko istilu eta ezin-ulertuak.

TELEKOMUNIKAZIOEN LEGEA

Arazo hoiei aterabidea bilatu eta gai hori arautzeko lege bat sortu zen 1998an. Telebista, telefonoa, irratia, internet eta gisa horretako zerbitzuendako instalakuntza paratu edo aldatu nahi duten nagusi eta maizterrek legeak agintzen duena bete beharko dute. Baina zer dio legeak?

Hauxe: nagusien artean hirutik batek alde egon behar duela. Bertetik, hiru pisutik batek antena izatea beharrezkoa da antena kolektiboa paratzeko.

Auzo-elkarteak antena jartzea erabakitzen badu antena hori ez da denen artean ordainduko, baizik eta horren alde ateri diren bizilagunen artean bakarrik. Dena

Gai honengatik maiz gertatzen dira bizilagunen arteko istilu eta ezin-ulertuak.

den, gero seinalea hartzen duten guziek ordainduko dute dagokien kuota.

NORBERAREN KONTURA ANTENA PARATZEKO

Pisu-etxe batean amankomuneko antenarik ez badago eta hiru hilabeteren buruan jartzeko intentziorik ez bada somatzen, auzo-elkarteko presidenteari erran ondotik aukera dago norberaren kontura antena instalatzeko. Hala ere, gero nornahi konektatu daiteke dagokiona ordaintzen baldin badu.

Bertzalde, mantenimendu gastuak erabiltzaile guzien artean ordaindu beharko direla dio telekomunikazioen legeak.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

► Martxoaren 28an

Amaiur-Urdazubi Baztango Mendigoizaleak.

BERA

► Martxoaren 28an

Adarra Larun Mendi Taldea.

SARA

► Apirilaren 4an

Gorramendi Axuria mendi taldea. (0559542526) Beñat.

HITZALDIAK

ELIZONDO

► Martxoaren 25ean

Parkinson eritasunari buruzko solasaldia egien da Arizkunenean. Arratsaldeko 7etan.

MOZORRO BESTA

ARANTZA

► Martxoaren 27an

Mozorroen besta egiten da, herrian barna itzuli bat egiten. Gero poteoan ibiliko dira trikitilarien laguntza. Eguedian pilota partiduak, eta afalondoan Mikel Salaberriren musika plazan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfнора. deitu behar da

► Martxoaren 22tik 28ra

Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

► Martxoaren 29tik apirilaren 4ra

Lesaka, Ituren, Leitza, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► Apirilaren 5etik

11ra Etxalar, Narbarre, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

DISKAK



«Herri Urrats»

EZTANDA

IZ

Herri Urrats 99a maiatzaren 9an egiten da, eta aurten Eztanda taldeak egiten du Senpereko aintziraren inguruan gehien adituko den kantua. Eztanda taldeko musikariak Donostiako Oskar eta Aitziber Estanga, Urriñako Beñat Zozaia eta Sarako Kristian Amorena dira. Duela bi urtetik honat hainbat berbena eta bes-tetan jo dutelako ezagutuko di-

tuz beharbada, baina urte bukaerarako diska ateratzeko asmoa dute Eztandaok. Herri Urratsen zuzenean joko dute, bistan da, baina bitartean kantua aditu nahi baduzu eskualdeko ostatu eta diska dendetan aurkituko duzu salgai: bi kanta 10 liberaren truke (250 pezeta). Hitzak Aitor Sarasuak egin ditu, eta bigarren kantua, berri, instrumentala da.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015923 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

LEITZA erdialdean bi pisu eta Amazabal goian bajera salgai daukat. 13, 12 eta 2 milioi pezeta.

☎ 649 476 615 • 948 510 348

ADOS

BERA.
- Pisu batzuk salgai.

☎ 607 978 656

☎ 948 451 841

BASERRIA SALGAI



☎ 948635060

ETXALAR: Baserrria salgai, etxe inguruko lur guzietan (soro eta zubiak). Prezioz solastuko gara.

BERA. Pisua eta bajera salgai Pio Baroja karrikan. ☎ 948 635 137.

LESAKA. Pisua salgai, Bititiria 2. pisuan. ☎ 948 637 931.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.
- Etxalarren etxe bat egiteko lur-eremua erosi nahi da.

☎ 607 978 656 • 948 451 841

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

ETXALAR. Pisu bat errentan emanen nuke, Arantxipi ondoan. ☎ 948 635060.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisu edo ganbara ttiki bat hartuko nuke errentan (pertsona batentzat). ☎ 948 599 079.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA

Denda salgai

Herri erdi-erdian, martxan dagoen janaridenda traspasatzen da. 70 m².
Informazio pertsonala.

☎ 929 010 790 (arratsaldetan)

BERA. Bidasoa karrikan 250 m²ko bajera salgai. 8 milioi pezeta. ☎ 948 630 589.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LEGASA. Opoka ostatua errentan ematen da. Gai-neran etxebizitza dauka. ☎ 948 450 544.

BERA. Legia 51.ean lokala errentan ematen dut. Tarte-ko solairua, argia, ura eta komuna. ☎ 948 630 217.

BERA. 80 m²ko lokal komertziala errentan ematen dut, San Esteban 37.ean. Dena prest negozioa edo bulegoa jartzeko ☎ 948 630 305.

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzula!

☎ 948 63 11 88

LANA

301 ESKARIAK

Neska batek Lesakan lan eginen luke etxeko lanetan. ☎ 908 978 317.

Gitarra (elektrikoa, akustikoa eta klasikoa) eta baxu klaseak ematen ditut. ☎ 948 630 217 (Fermin).



IGANTZI

Estobonaga alderdiko exekuzio unitatearen jardura sistemaren aldaketa

Igantzi Udalak 1999ko otsailaren 5ean egin-dako bileran, Estobonaga alderdiko exekuzio unitatean lankidetzaren sistematik ordainetapen sistemara aldaketa, hasiera batean onartzea erabaki zuen eta espedientearen jendaurrean paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta egunkari batean iragarri, hamabost eguneko epean herritarrek edo interesdunek hura aztertu eta egokiak ikusten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako espedientearen aditzera ematen da jende orok jakin dezan, interesatuek aztertu eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Igantzi, 1999ko otsailaren 23an, ALKATEA, Ramon Retegi Iturbide

LANA

302 ESKAINTZAK

Inkestak egiteko emakumeak behar ditugu, 25 eta 55 urte bitartekoak. ☎ 948 884340 (gaueko 10etan).

Aste Santurako **neska bat** behar da ortzegunetik igandera Urdazubiko Ikaburua jatetxean. ☎ 948 599 222.

Taxi plaza bat traspasatzen da Beran. ☎ 948 630 629.

Galdaragintza, soldadura, muntaia eta planoak interpretatzen dakien langilea behar dugu Bera eta Oronoz arteko zonaldean. ☎ 948 637 411.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Kamioi-burua salgai, Iveco-190-36 (380), SS-AK. Balazta elektrikoa, esku libre telefonoa eta suspentsio neumatikoa. ☎ 629 281 176 (9,30etatik 13,30etara eta 17,30etatik 19,30etara, Fran).

Peugeot 405 Diesela salgai. NA-AJ. 5 urte eta egoera onean. ☎ 948 631188.

Nissan Sunny salgai. 16 V, 59.000 km eta NA-AK matrikula. Egoera onean. ☎ 948 630 482.



IGANTZI

Herriko bideak moldatzeko obren lehiaketa

LEHIAKETA PUBLIKOA OBREN KONTRATOA

Igantzi Udalak lizitaziorako dei egiten du, kontratu hau adjudikatzeko:

- Xedea: Igantzi bideak moldatzeko obrak.
 - Adjudikazio modua: lehiaketa publikoa. Prozedura irekia.
 - Lizitazioen prezioa: 25.319.693 pta, BEZA barne.
 - Enpresaren sailkapena: G Taldea, 6. azpitaldea, D kategoria.
- Proposamen aurkezpena: eskaintzak Udaleko Idazkaritzan aurkeztu beharko dira, lizitazioaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu eta biharamunetik kontatzen hasita hogeita sei eguneko epean.
- Baldintza plegua eta proiektua Udalaren bulegoetan daude interesatuen eskura.

Igantzi, 1999ko martxoaren 9an,
ALKATEA, Ramon Retegi Iturbide



IGANTZI

Arau subsidiarioen aldaketa

Igantzi Udalak, 1999ko otsailaren 5ean egindako bileran, eta udalak berak sustatuta, Arau Subsidiarioen Katalogoan sartuak ez dauden eraikinen ezaugarri estetikoaren ordenantzen aldaketa onartu zuen hasiera batez (poliuretano izeneko materiala erabiltzeko aukera emanaz).

Halaber, espediente hilabete batez jendaurrean jartzea erabaki zuen, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita. Aipatutako espediente aditzera ematen da jende orok jakin dezan, interesatuek aztertu eta bidezkozat jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Igantzi, 1999ko otsailaren 23an,
ALKATEA, Ramon Retegi Iturbide

MOTORRA

502 TAILERRAK

GANIX

Tailerrak

Iurilandeta, 9 • 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua



BERABI tailerrak

948 631 445 • BERA

Bigarren eskuko autoak
Peugeot 405 Diesela
Nissan Patrol 4 zilindro
Furgoneta C-25 TD
Pick-up berriak

MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Land Rover Discovery, VW Golf
GTI eta Polo, R.Express D,
Super 5, Corsa GSI, Citroen AX.
Suzukiak: Vitara eta
Samurai aukeran.




URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeko, bidali seiola eta sobrea zure helbidearekin.



Joseba Alzuri
sunbildarrak apirilaren 21ean beteiko ditu urteak. Ongi pasa zure urtebetze eguna. Zubizargainakoak.



Leire Arretxea
sunbildarrak apirilaren 4an beteiko ditu urteak. Zorionak denen partetik.



Pello Etxegia
sunbildarrak apirilaren 17an beteiko ditu urteak. Zorionak aitaxo. Utzi purua eta ateri pastelak!



Lolli Arretxea
sunbildarrak apirilaren 3an beteiko ditu urteak. Txanpainaren zain gaude. Zubizargainako familia.



Frantxisku Arretxea
sunbildarrak apirilaren 4an beteiko ditu urteak. Zorionak Janire eta Xubanen partetik.



Iñigo Arretxea
sunbildarrak urteak bete ditu apirilaren 23an. Zorionak familiaren partetik. Ez tarta asko jan.



Espe Anzizar
lesakarrak martxoaren 20an beteiko ditu urteak. Zorionak. Igantzi eta Lesakako familia eta bereziki Carlos, Garazi eta Izaro.



Aritz Telletxea Anzizar
lesakarrak 9 urte beteiko ditu martxoaren 27an. Zorionak familiaren eta bereziki Jesulin eta Ikerren partetik.



Jose Mari Anzizar
doneztebarrak taitantos urte beteiko ditu martxoaren 24an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Aupa Lentejo!



Luis Mari Mattin eta **Matxikote**
beratarrek urteak beteiko dituzte martxoaren 20 eta apirilaren 11n. Zorionak!



Ana Bakero Garatek
apirilaren 6an beteiko ditu urteak. Zorionak Nobeto eta Nahiaren partetik. Muxu bat.



Urozko Andoni Zozia Ursuegik
4 urte beteiko ditu martxoaren 27an. Zorionak familia eta anaia Mikelen partetik.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Paumak (pabo errealak) salgai. ☎ 948 630 140.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Husky siberiarra galdu dut Ibardin inguruan, xuri-bel-tza, emea, bi urtekoa. ☎ 948 631 551.

Goizuetako karnabaletan, otsailaren 16an **belarrirako bat** galdu nuen, urrezkoa, hiru harri txurirekin. ☎ 948 510 328.

Urrezko eskumuturrekoa galdu dut Beran. ☎ 948 631 168.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Haurrentzako **gela bikotza** salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 948 637 026.



Bidali TTAPI-TTAPA herrikanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

☎ (+34) 948 631188

HARREMANAK

801 AGURRAK

Sunbillako **Igor Agestari**: zorionak martxoaren 2an 21 urte bete dituzulako. Zure bihotzeko rubiaren partetik. Su Kandel.

Sunbillako **Mikel Agestari**: zorionak otsailaren 25ean 21 urte bete zituelako. Zure bihotzeko azukre koxkoraren partetik. Tiki Tiki ti.

Biltegieta gordetzeko **gari, garagar eta olo ahotza** salgai, fardo haunditan. Garraioa gure kontu. ☎ 948 302 208.

Antiguedades Lengoa (Leitza). Antigoaleko altzarien salerosketa: ispilu, portzelan, erloju, koadro, tximini, kutxak... ☎ 948 510 207 (asteburuetan, deitu bisitatu baino lehen).

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Paula Oskoz Mazizior lesakarrak 4 urte bete ditu martxoaren 24an. Zorionak atauxi-amaxi eta osabaren partetik.



Xabier Aleman Barriola leiztarrak martxoaren 29an beteko ditu 33 urte. Zorionak eta oso egun ona pasa.



Martina Loiarde Arozena goizuetarrak urteak bete ditu martxoaren 16an. Zorionak senarra eta seme-alaben partetik.



Felix Perurena goizuetarrak 30 urte bete ditu martxoaren 13an. Zorionak 'Danbolin', txanpainaren esperon nagok. Hire lagun bat.



Jon Ollok martxoaren 13an 9 urte bete ditu. Zorionak Aitor, Irati eta Julenen partetik. Muxu asko eta segi futbolean gopak sartzen.



Marta Arrubarrena lesakarrak 19 urte bete ditu martxoaren 13an. Zorionak eta ongi pasa familiaren partetik.



Uxua Lazkanotegi Matxiarena beratarrrak 25 urte bete ditu martxoaren 15ean. Zorionak Alaitz eta Ainhoaren partetik.



Ainhoa Aguilera Lazkanotegik martxoaren 16an bete du urtea. Zorionak atta, ama eta Alaitzen partetik.



Jon Sein doneztebarrak martxoaren 20an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Itxaso Salas sunbildarrak 9 urte bete ditu martxoaren 18an. Aunitz urtez Sunbilla eta berako familien partetik. Aupa neska!



Irune eta Itsaso Elizagoien etxalartarrek 6 eta 4 urte beteko dituzte martxoaren 29 eta apirilaren 4an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



Jabi Salas sunbildarrak 8 urte bete ditu martxoaren 5ean. Aunitz urtez Sunbilla eta Berako familien partetik. Aupa mutiko!



Olatz Juanena Saez oiztarrak urteak bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren partetik.



Oihan Olaizola Otxoteko lesakarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



Amaia Lukanbio aranztarrak martxoaren 23an bete ditu 6 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Ane Anso Loiarde zubietarrak apirilaren 8an urtea beteko du. Zorionak bihotza. Muxu bat familia guziaren partetik.



Marian Musgo beratarrrak 6 urte beteko ditu martxoaren 28an. Zorionak eta muxu bat atta, ama eta Javier anaiaaren partetik.



Berako Igonek martxoaren 12an urteak bete ditu. Ongi pasatu baina desmadratu gabe, ezagutzen dugula elkar... muxu bat. Kuadrila.



Ana Isabel Telletxea Iraola aranztarrak 7 urte bete ditu martxoaren 16an. Zorionak eta muxu bat familia guziaren partetik.



Elizondoko **Ainhoa Ibarra** 11 urte bete ditu martxoaren 20an. Zorionak zure familiaren partetik.



Sunbilla **Felix Ibarra** eta **Maite Ibarra** martxoaren 18an egin dute 25 urte ezkondurik. Zorionak bere seme, senide eta iloben partetik.



Iñako Etxeberria zubietarrak urteak bete ditu martxoaren 24an. Zorionak ama Juli eta familia guziaren partetik. Urte askotarako!



Beñat Iparragirre Olasagasti etxalartarrak 3 urte beteko ditu apirilaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



Nerea Sorondo Maritorea beratarrrak martxoaren 16an 12 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Oihane Etxarri donostiarrak urteak bete ditu martxoaren 21ean. Zorionak familiaren eta bereziki Ane eta Maddiren partetik.



Maddi Ugalde Eitzaurdia beratarrrak 4 urte bete ditu martxoaren 18an. Zorionak izeba, osaba eta Aneren partetik.



Ane Eitzauria Mentaberra 3 urte bete ditu martxoaren 19an. Zorionak atta eta amaren partetik gure artistari.



Xabier Eitzauria Pikabea beratarrrak urteak bete ditu martxoaren 7an. Zorionak Esther eta bereziki Aneren partetik.



Naia Eснаola beratarrrak 7 urte beteko ditu martxoaren 31n. Zorionak pottoki! familiaren partetik.



Beñat Leiza Garrido 5 urte bete ditu apirilaren 2an. Muxu haundi bat aita, ama eta lbonen partetik.



MªGloria Erasun gazteluarrak, martxoaren 13an urteak bete ditu. Zorionak MªPaz, Conchi, Feli eta Maritxu lagunuen partetik.



Beñat Leiza Garrido 5 urte beteko ditu apirilaren 2an. Muxu haundi bat atta, ama eta lbonen partetik.



Joseba Pikabea beratarrrak martxoaren 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak Eider, atta, ama eta aitaxiren partetik.



Beñat Irazoki exalartarrak 12 urte beteko ditu martxoaren 25ean. Zorionak eta aunitz urtez Hasier, eta eta amaren partetik.



Asunción Aiestaran lesakarrak urteak beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak familiaren eta bereziki Miren-xuren partetik.



Mari Carmen Olaetxea lesakarrak 33 urte beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak familiaren partetik.



Gurutze Andueza beratarrrak apirilaren 7an 10 urte beteko ditu. Ondo pasa familiaren partetik, urte askoan.



Oihana Telletxea donamariarrak 10 urte beteko ditu martxoaren 25ean. Zorionak Mikel, Josu eta gurasoen partetik.



Julio eta Dani Lukanbio aranztarrak apirilaren 12an urteak beteko dituzte. Zorionak bere familia guziaren partetik. Aupa jatorrak!



Josefa Goia beratarri zorionak bere senarra eta bi semen partetik.



Aitor Olló Almandozek martxoaren 30ean 13 urte beteko ditu. Zorionak Irati, Jon eta Julenen partetik.



Aitziber Urkijo Madariagak 9 urte beteko ditu martxoaren 29an. Zorionak familiaren partetik.



Pili Ruiz lesakarrak martxoaren 29an beteko ditu urteak. Zorionak familiaren partetik eta Nagoreren partetik muxu bat.



Beltran Ruiz lesakarrak martxoaren 21ean urteak bete ditu. Zorionak familiaren partetik eta muxu bat C-ren partetik.



Pello Elizagoien beratarrrak urteak beteko ditu martxoaren 23an. Zorionak familiaren eta bereziki Unairen partetik.



Ander Eskudero Orbegozok 2 urte beteko ditu martxoaren 11n. Zorionak!



Amets Campos Sagastibeltzak otsailaren 18an urtea egin zuen. Zorionak!



Amets Campos Sagastibeltzak otsailaren 18an urtea egin zuen. Zorionak!

derrigorrezko bigarren hezkuntza ere

ikastolan egiten ahal da

berako **labiaga** ikastola
bortzirietako dbh ikastola

matrikula epea martxoaren 29an zabalik, informazio eta matrikula altzateko egoitzan. Tfnoa: 948 630 172. e-posta: bera@ikastola.net.

nafarroako gobernuak diruz laguntzen du bortzirietako ikastolaren dbh etapa



LESAKA eta BERAko IKASTOLAK



Matrikula epea
zabalik

martxoaren 29tik
apirilaren 16a arte

Labiaga ikastola
Tfno: 948 630 172

bera@ikastola.net



<http://www.jalgi.com/>

Tantirumairu ikastola
Tfno: 948 637 308

lesaka@ikastola.net

Zein Toki
dugu gure
eskualdean
prestakuntza
Ona izateko?

D.B.H. (E.S.O.) “A”, “B” eta “D” ereduetan
BATXILERGOA “A” eta “D”
LANBIDE HEZIKETA (F.P.)

BERAN

Garraioa, jantokia, egoitza (erresidentzia)

Aurreinskripzioa apirilaren 16a arte

948 625 000